

# HORTA'KO SALBADOR DOATSUAREN

BIZITZA



GAXOEN SENDATZALEA

AITA AZCUE.

TV  
11



17-16201  
R-8578

A.T.V. 6611

†

R. P. JUAN FOGUET O. F. M.

---

# HORTA'KO SALBADOR DOATSUAREN

BIZITZA

AITA JOSE MARIA AZKUE

PRANTZISKO'TARAK

EUSKERATUA



ELUSTONDO.-ZARAUTZ

1932

NIHIL OBSTAT  
FR. COSMAS LAMARAIN

Censor Ordinis.

IMPRIMI POTEST

SAN SEBASTIAN 7 DE DICIEMBRE 1931.

FR. JULIO EGILUZ

M. P.

NIHIL OBSTAT

Censor

EMMANUEL DE LECUONA

VICTORIÆ, 29 JANUARIII 1932.

IMPRIMATUR

VICTORIÆ, 20 FEBRUARIII 1932

PRO VICARIUS GENERALIS

JACOBUS VERASTEGUI.

## ITZ - AUREA.

Bein V'gañen Nikolas A. S. esan zuan: «il ondoren mirariak egiten dituzten Prantzisko donearen seme guztiak aldareetan jañi nai balirake, Ama Eliza doneak ez luke beste lanik egin bear izango».

XIII'gañen Leon A. S. zion: «Poztu ta atsegin izateko bidea badu Asis'tar Prantzisko donearen Ordenak, Kristo'rekin gozartzen dauden bere semeetako asko, Eliza Ama doneak Santutegian eta doatsuarteñ ipiñita dauzka-ta».

Aspalditik dei-egiten dio gure Ordenari Eliza Ama doneak: «Hortus Minorum Fertilis». —Praile Txikañen Baratz Emakoia. — Eta alaxe da. Zazpireun urte oetan baratza onetan atzaldurak diran loreak ezin da bereziagoak, mardulago ta utsaintsuagoak dira. Azki da bere santutegiari ta añendi-idaztiari (1) legiratzea, egi au ezagutzeko.

<u>ORDENA</u>	<u>SANTUAK</u>	<u>DOATSUAK</u>
Lenengoak	53	126
Bigañenak	5	21
Irugañenak	51	62
Guztiak	<u>109</u>	<u>209 (2)</u>

Eliza Amaren epaibidean daudenak «kanonizatu» edo santutzat aitortzeko 9, eta doatsutzat aitortzeko 121 dira.

Oetzaz gañera, luzaro ez dala, 2416 China'ko martiriak jañiak izan dira Eliza Amaren epai-

(1) Breviarium R-Seraphicum.

(2) Azkenengo 31 urte oetan (1900-1931) «kanonizatuak» eta doatsutzat aitortuak 42 dira. Acta Ord. M. II. 1931.

bidean: 8 Prantzisko'tar, 7 «Misioneras Franciscanas de Maria» (mojak), 500 da geiago Irugearen Ordenakoak, eta kristauak gañerakoak. «Elizak bere epaibidean artu izan duan ozterik aundiena da.» (1)

«Kanonizatuak» izateko daudenen artean, lenengoa Horta'ko Salbador doatsua da. Lurgañean ikusi oi dan miragilerik aundiena. Apostoluak ezkerro ez da ikusi aundiagorik. Ama Mariak, eta Paulo apostolu doneak agerkaldi askorekin alaitzen zuten, baratzei ta sukalkiña izanañen. Ainbat zabaldu zan bere onoimen ta santutasunaren otsa, Tortosa'ko komentua ta uria bera, etziran ara zijoazen gaixo-aldrak artzeko aiñ. Praileak etzeuden ainbat gizozte ikusten oituak; eta beren komentuan pakea ta ixiltasuna nai zituztela-ta, Horta'ko komentura bialdu zuten. Komentu ura bakartia izanañen, eliza gaxoz egunero betetzen zan; eta aitortu ta jaunartu ondoren gaixo guztiak sendatuta lagatzen zituan. Ogei mila gaixo ta elbañi batu ziran Reus'ko komentu inguruan, onera leku aldatu zutenean. Epaibidean (Prozesuan) 12.000 (amabi mila) dira etenak eta elbañiak gurutzearen *ziñalea* eginda sendatu zituanak; ilda piztuak 2-bi; jaiotzez mutuak 35; itxuak 31; ezin zenbatu ala dira gañerako gaitzetatik sendatu ziranak.

¿Nola izan diteke Salbador doatsua oraindik «kanonizatua» ez izatea? Ez da eñaz galde onen erantzuna. Salbador doatsuak ilda gero ere mirari asko egin ditu, ta *Miragile Aundienetakoa* atzaltzen da: au dala-ta, ogeitamar urte baño len «kanonizatua» izateko lanak, Or-

---

(1) Ibidem

denako Buru Prantzisko Gonzaga (1) aita agur-  
gañiak egiñak zeukaz. Lan auek V'gañen Sixto  
A. S. onartu zituan (1596).

Gero Santua bizi izan zan lekuko obispo ta  
artzobispoak egin zituzten gai onetarako lanak,  
eta Eñomara eraman zituzten; baña Eñoma'tik  
erantzun au artu zan: «Gerorako utzi bedi «ka-  
nonizazioa» beste asko lenagokoak badaude-  
ta. Bitartean gure baimena ematen degu Hor-  
ta'ko Salbador izenakin bere irudia burestunez  
apaintzeko, ta bere onoiemenak eta mirariak  
idazteko». Baña gerorako au etzan atzaldu.  
¿Zer dala-ta?..... Bein ere ez baño, berandu  
obe da. Ta orain bete-betean ari zaizkigu Eño-  
ma'n, santutzat artzeko lanetan, ta oso auñera  
dijoaz lan auek. Jaungoikoari nai dakiola len-  
bailen «kanonizatua» izatea.

Irakurle maite; Santu onen bizi-edestia aur-  
kezten zaizu idaztitxo onetan, len ezagutua izan  
zan bezela euskaldunen artean, orain ere eza-  
gutua izan dedin. Gogairik geienak, gauz ba-  
tzuek utzita, aita Juan Foguet, prantziskotañak,  
gazteleraz (erderaz) idatzi zuenetik artuta dau-  
de. Azkenez, bederatzi asteazkenak edo bede-  
ratziuñena dañazki.

### *Euskeratzaleak.*

---

Zarautz'en Hungria'ko Isabel do-  
nearen egunez, 1931'gañen urtean.

---

(1) Luis Gonzaga donearen osaba—gero Mantua'ko obis-  
po izana.

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page. The text is arranged in several paragraphs and appears to be a formal document or letter.



*Abeñia.—Jaiotza.—Gurasoak.—Aurtzaroa.—Gaztaroa.*

---

Katalunya edo Kataluña'ko Jerona erkian dago, Santa Koloma de Farnes deritzaion erria. Au da Horta'ko Salbador, egiz *miragile katalandarra* deitu genezaiokenaren jaioterria.

Erri onetako gaixo-etxe batean 1520'gañen Lotazileko (Abenduko) igande gau batean jaiozan, geroago onoimenik edereñez apaindua egonik, uri ta erriak goraldtu, ta bere il-obia aintzaz (gloriaz) beteko zutena.

Ez dakigu nortzuk ziran Salbador doatsuaren gurasoak, eta zer izen ta abizen zituzten, igaro diran urteak beren oroipena luñalduta utzi dutela dirudi; baña ez Santa Koloma'n zuten gaixo-etxe-zaintza apala. Maitetasun aundia agertzen zioten an biltzen ziran gaixoei, ta andik igarotzen ziran bidari arotzei.

Gure doatsuaren gurasoak Katalunya'n ala *Cerdeña*'n jaioak ziran ez dakigu. Rafael Boschi ta Prantzisko Seki, prantziskotarrak, Katalunya'rak zirala diote; baña beren argibideak ez dira bein ere aintzakotzat artu. Obeto esan diteke *Cerdeñarra*'k zirala. Damaso Serpi Aitak, Santuaren bizi-edestia egiteko lanik geiena egin zuenak, au esaten digu (1): bein Sal-

---

(1) Aita Damaso Serpi Aita Santuak ta Ordenako Buruak Españiara bialdua izan zan Salbador anaiaren epaibideak asteko. . . .

bador anaia bere komentuko prailiekin zego-  
ala, izar bat ego aldera aldatzen zala ikusirik,  
ingurukoei esan zien «bide bera ibili bearko  
det nik». Beste aldi batean Jaun batekin izketan  
jardunaz esan omen zion: «Komentuko ate ga-  
ñean Ama Maria'ren irudia daukan uri eder  
batera joan bearean izango naiz ni». Eta zein  
zan uri ori galde-egiñik, erantzun zuan: Ca-  
ller, uri edera ta aberatsa, orko luñaldetara naiz  
ni». (1) Emen ezagutu diteke Salbador doa-  
tsuaren gurasoak etzerala katalunyarak, Cer-  
dañarak baizik.

Ez dakigu eskier onetzaz gañera beste se-  
merik izan zuten ala ez. Aita Vital'ek bere «Ma-  
dre Perla Serafica'n» seme bakaña izan zutela  
dion bitartean, Marka aitak (2) beste semea ta  
alaba izan zituztela dio. Anaia uste danez gure  
Ordenako *Legoa* zan, ta areba ezkondata,  
santu-otsarekin iltzan.

Dana dala: zuaitza, ematen dituan igalez  
(frutuz) ezagutzen baldin bada, Salbador'en  
gurasoak on-onak zirala ikusita dago, onela-  
ko igalea munduari eman zioten-ta.

Azitzen zijoanez *erlijio*-gauzetan ere erakus-  
ten joan ziran bere gurasoak. Jaungoikoaren  
bideetan zuzentzen zuten, erorbide guztietatik  
aldenduaz eta onerako indara emanaz. Onoi-  
menerako sentzuna berezkoa izanik, artean  
ezaguerara eldu baño len, maiteki, nekatugabe  
egiten zuan on-antza zuan guztia. Ixila, otoi-  
egiteko eratua, elizkizunetan izaten zuan atse-  
gin guztia; beartsuekin ongilea, gogo onez

---

(1) Epaibidea ikusi bedi, (Procesua).

(2) Kataluña'ko-praille edestia.

ematen zien ostatua gaxoei, ta andik igarotzen ziran bidari arotzei. Onela zan bere aurtzaro ta gaztaroa.

Gaztetxoia zala mirari batez bizirik gelditu zan. Ardi batzuen ondoren zebilela, erota batera zijoazen ur biziak eraman zuten; berez etzezaken ezer egin uretik ateratzeko. Gizon batzuk joan ziran mutikoaren ondoren, ta urgañean jostatzen arkitu zuten. Pazitiko Gizo aitak deabruaren lana zala dio erortze ura, ta ez da aritzekoa, jakiñik, zeñen amonua biziz begiratzen zion anima oneri.

---

*Barcelona'n.—Prantzisko'tar praile-gai.—  
Lenengo mirariak.—Ziñitzak.*

Ondo ezita utzi zuten bere gurasoak Salbador doatsua Jaungoikoanako bildur ta maite-tasunean, ta kristau on-ona izateko ikasgaie-tan; eta Santa Koloma'ko ostalari beartsuak, zer emanik geiago etzutelako, gerorako bizi-bidea baño, 15 urte zituan garaian bere aitak, Barcelona'ra aldatu zuan (1) aita Markak dio-nez; edo Serki aitak dion bezela, bere aita-or-dekoak, aita ila zuan-ta.

Oski-egiletza (zapaterotza) autu zuan gaz-teak, eta «Boria» etxeako oski-erakusle baten mendean jañi zan. —Orandio ere 1764'gañen urtean zutik zegon etxe au—Barcelona'ko biz-tanleak ala uste dute beintzat, oski-egileak ba-tez ere, ta uste onetan jai-egiten dute Salbador doatsuaren eguna oski-egile guztiak, akats (multa) aundiak jañita, jai-egun au austen du-tenen kaltez. (2)

Azkaña zan gure oskile gaztea, ta goi-argiz, ta Jaunak lagun egiñik asko auñeratu zuan, ala-ko eran, bere erakuslearen añidura zalarik, be-re lagunentzat jazarpe (3) ixila izaten zan. La-nean ari zan artean, bere biotza Jaungoikoaga-na eta Berak egin zituan gauzetara emana eu-

(1) 1927'garren urtian «S. Congración de Ritos» deritzaion Ba-tzarrak eman zuen «Decreto»'an esaten da: guraso gabe geltu-rik, Barcelona'ra aldatua izan zan.

(2) Oski-egillea izan zala diotenak Aita Prantzisko Marka, aita Prantzisko Seki, ta *Breviarium R-Seraphicum* dira.

(3) *Erreprentzioa*.

kitzen zuen; auek erakartzen zizkioten anima-ko almen guztiak. Lanean jardun bear etzuen aldia, etzuan alpeñik artzen jostalditarako, bere aterpea elizan zan, ta bere jostaketa otoi-egitea. Otoitzean eskatzen zion Jaunari, zer bizi-bide artu bear zuan, aŕen, agertu zezaiola, biotzeko berotasun aundiagoakin Bera goraltzeko. Jaungoikoak aditu zituan bere eskari apalak, eta Asis'tar Prantzisko donearen Ordenan sartu zedila, iragaŕi zion. Azkoren irizpena artuta gero, Katalunya-erkiko buruagana joatea erabaki zuan (1) ta anaia (legotzako) izateko jazkia, Barcelona'ko uri bazteŕean dagon «Santa Maria de Jesus» komentuan artu zuan (2)

Praile-gai (nobizio) igaro zuan urtean, munduarentzat osoro bene-benetan ilik, geroago iritxi bear zuan santutasun aundiaren oñafiak ezartzen jardun zan. Bere eginkizun guztia griña txarñak beeratu ta bere oiturak oneratzea izan zan, biziera beñiak eskatzen ziozkan egin-bearñak betetzeko. Beretzat eginkizunik apalenak artzen zituan: gau-austeak, barauak, *dizipliñak* ta ildurak, nondik nora ta nola geiago egin ibiltzen zan. Otoitzean iraunkoŕa zan. ta izketa guztiak Jesus eta Mariaren izen gozoz apaintzen zituan: oitura onek bizi-aldi guztian iraun zion.

Luzaro baño len agertu zuan Jaungoikoak, zeñen gogokoa zuan praile-gaiaren onoinenak

---

(1) Salvador doatsuak *habitoa* artu zuenetik Cerdeña'ra joanarte erki-buruak izan ziran: Pedro Beia—1540: Juan Pla—1544: Juan Valls—1545: Miguel Cadevila—1548: Antonio Falco—1551: Narciso Luce—1554: Francisco Trusillo—1556: Juan Ricart—1560: Bartolomé Vilaespinosa—1564: onen mendekoa zala aldatu zan Cerdeña'ra.

(2) Orduko komentua 1712'garren urtean botia izan zan, eta izen berarekin egiña bestea uri barruan (gaur parrokia).

zabaltzen zuten santutasun-usaia.

Komentuan ospetsu jai-egiten zan urtebeñi-eguna. Praileak, uriko aundizkiz gañera, on Prantzisko Montaner—Erege-ordekoa— dei-egiña zeukaten jai onetarako. Auñeko gabean, sueriak artu zuan sukalkin anaia, eta Salbador anaiari deituta, sukaldeko giltzak eman zizkion, eskatuaz bere ezongia, añen, lendakariari (Guardianari) agertu zezaiola. Artean deitu zuten gau-erdiko añendietara (matñetara) ta Salbador anaia giltzak zakelean sartuta, elizara joan zan, eta an igaro zuan gau guztia, otoi-egiten, bere burua zigortzen, bere pekatuak aitortuta Jaunartzeko eratzen, egunero egiten zuan bezela.

Jaungoikoagan geldua, burutik galdu zitzaion sukalkiñaren ezongia, giltzak eta lendakaria. Baña aita lendakaria etzan aztu egun artan etxeak zeukan bete-beaiaz, eta sukaldera joan zan nola ote zeuden gauzak ikustatzera, ta sukaldea itxita arkitu zuan. Deitu zion sukalkiñari, ta gaixo zegola esan ziotenean, deitu zion praile-gaiari, ta oartu zuten otoi-egiten ari zala. Aita lendakariak esan zizkan itzak etziran gozoak; baña Salbador anaiak eramanpenik aundienaz artu zituan. Sartu ziran biok sukaldean, eta ez surik ez bazkari antzik etzegola ikusirik, eta goiza auñeraxamar, asefe bizian esan zion jantzia kenduta kanpora bialduko zuala. Negañez belauniko jañita Salbador gizaxoak esan zion, añen, etzezala oñelakorik egin: «Jaungoikoak eta bere Ama doneak zuzenduko dute nere utsegitea» ots egin zuan,

—«¿Nola?»—jardetsi zuan lendakariak.

—«Jaungoikoak nai duan eran»—erantzun



Salbador doatsua sentzu-galduta.

zion praile-gaiak.

Aita lendakariak, Salbador anaiaren negarez eta eskariz, biotz beratua, sukaldian utzi zuan, eta au Jaunari eskatzen asi zan, berak naigabe egin zuan utsegite ura, aŕen, zuzendu zezala.

Laister maniatu zan bazkaria: jantokira *kanpiaz* deitu zan... ta guztiok aŕituta gelditu ziran aŕean ikusten zuten mirariakin. Eta mirariotsa komentutik *kanpora* atera zan, eta danok Jaungoikoa goraltzen asi ziran bere mirabe apala ala aldezten zualako.

Bere ziñitzak (botoak) egiteko garaia etoŕi zan, eta ziñitzak egin zituan egunean jende aundia bildu zan bere santutasunaren otsaz, eta zeñen adoretzu Jaungoikoari bere ziñitzak egiten ziozkan ikusita, malko mardulak ixuri zituzten.



### III

#### *Santuaren onoimenak.*

---

Egizko onoimenak anima on-onaren biotz-baratz edera apaintzen duten lore usaintsuak izaten dira, beren utsai gozoz Jaunaren jargoia beteta, geidien (urkoaren) biotzak Jaungoikoa-rengana erakartzen dituztenak: au dala-ta edestu nai ditugu Salbador doatsuaren onoimenak.

Fedea da onoimen guztien lenengo oiñaria: santuak egin zituan mirariak esaten digute, zeñen bañendua zegon gure gaztearen biotzean onoimen eder au. Jesukristo'k bezelaxe, fede au eskatzen zien, bere bitartez mirarien bat irixi nai zutenei: bere fedearen agerpena zan, bere biotzean nabaitzen zuan atsekabea, Eliza-ren etsaiak, beraren kaltez egiten zituzten eraso-aldiak ikustean.

Fede onetatik zetoren gur-zalefasuna, egunero artzen zuan *Eukaristia*-ganako batez ere: Ama Maria'ganako oneraspena aundia ta bigun-biguna zan: berezizki goraltzen zituan Gurutze donea, Migel goi-aingerua, Aingeru zaitzalea, Paulo apostolua, ta gure aita Prantzisko donea.

Itxaropenak beti lagun egiten zion: itxaropen onek indartzen zuan, gure iritziz, egin ezin zitezken egintzetan ere, fedea ta itxaropena bi-ziak baziran, fedeak, eta itxopenak etzuten indar aundirik izango, maitetasunak lagun egin ez balio. Maite-maite zuan Jangoikoa, ta Jaungoikoanako maitetasun aundi onek, su-ta-garjartzen zion biotza, ta biotz sutsuak ematen zion nabaitzen zuan egaña obendunak (pekatar-riak) oneratzeko, ta geideak onbideetan aurre-

ratzeko, Jaungoikoaren maitetasunean ere ta kiskaildu nai zituan gizon guztiak.

Jaungoikoa maite izanik, maite zuan geidea ere, maitetasun biok maitetasun bat egiten bait dute.

Baña fedeak, itxaropenak eta maitetasunak etzuten luzaro iraun izango Salbador doatsua-  
ren biotzean, beren laguntza ta aterpea zen-  
tzutasunean bilatu izan ez balute: au dala-ta  
uzten zuan txarëtsi âl ziteken guztia, ta egiten  
zuan Jaungoikoaren bildurëko gizonari zego-  
kiona, bere griña txarëak lotu ta menderatuaz,  
erorbideetatik alde-egiñaz, ta onbideetan aurre-  
ratzeko bear zuana artuaz. Praile latza ta biziera  
gogoñekoa zalarik, etzuan galbide ta oben-bi-  
deetan dabilzenen kaltez itz-egiten; bestela be-  
re biziera ona begi-aurrean ipintzen zien. Emen-  
dik zetorkion, itxurik gabe aurkezten zuan era-  
tasun ura, bere apaltasuna, zindotasuna. gauza  
on-zaletasuna, ixiltasuna, ta abar....

Zentzumena-aren lagun zuan zuzentasuna: au  
dala-ta ematen zion Jaungoikoari, Berari zor  
zitzaiona, ta gizonari berea. Etzuan luñeko e-  
zertxo ere beretzat bilatzen, egintza guztiak,  
Jaungoikoari atsegin ematearen, izaten ziran.  
Bere gogalpen guztia Jesus'en Nekaldia (Pa-  
sioa) zan: emen Jaungoikoak ematen zizkan  
bere adizkide mamiei eman oi dizkien zentzu-  
galtze aiek, askotan ilik bailegoan, gora jasota  
eukitzen zuala.

Zeruko Aitarekin zituan elkarizketa orietatik  
ateratzen zan, al guztiakin apaïndua, izaki guz-  
tien jabe bailitzan: bere eskuetara etortzen zi-  
tzaizkion txoriak; ogia aros-biurtzen zuan;  
aize-gogoñak lotuta uzten zituan; itxaso aroa,  
bere aginduz, bare-bare geratzen zan....

Otoitza eguneroko ogia zuan, etzan aspertzen Jesus eta Maria'ren izen gozoak esaten, eta Ama Maria'ren Agurtza (erosario donea) ain gogokoa zuan, etzuan bildurik izaten bestiei ardura eskatzeko. Eskuan guretxetxo bat eramaten zuan, Seme-Jaungoikoaren neke-oñazeak beti gogoan erabiltzeko, ta gurutze onen bidez mirari asko egiten zituan.

Egiz liluratuta egonik, bein ere etzitian bere españak zabaltzen, egia bera goraltzeko izan ezik: inoiz etzuan gezurik esan, ezta egiarik eskutatu ere, maitetasun ta zuzentasunak ixiltzeko agintzen ziotenean ezpada. Gañerakoan atsegintsua zan, bai bere anai-praileakin, bai geidiekin, guztien zorionetzaz poztuaz, eta beren gaitz eta eramankizunetzaz eruki izanaz. Ildurakoña, latza ta gogoña zan bere buruarentzat; erugabea izanañen, esan genezake, bere burua «obendunik aundienetzaz» zeukala. Emendik sortzen zitzaion, Horta'n, Reus'en ta Barcelona'n eraman bear izan zituan gora-berra, eraso-aldi eta agerkai izugarrietan atzaltzen zuan eramanpen aundia. Estualdi guztiak ondo artzen zituan, eta Jaungoikoari eskeñak agertzen zizkion, Kalbario-mendin iltzan Jesus beti gogoan zeramakien-ta.

¿Zer geigo? Garbitasunean aingerua zirudin: aurtzaroan bezela, gaztaroan ere, ta bere bi-ziak iraun zion artean, etzan itz bat bere espeñetatik atera onoimen onen kaltez. Bere itz eta egintzetan ain zoragarria agertzen zan, biotz guztiak beragana erakartzen zituan, eta obendun lizunienak, beren biziera gogoratuta, negarez uzten zituan.

Praile egin zanean, Prantzisko doneak bere

Araudian (Ereglan) agindu zuan gabetasunik goñiena gordetzea erabaki zuan. Etzion ezer luñeko gauzkatik; zerbaiten zaletasuna bere biotzean nabaitzen bazuan, berealaxe ateak itxizten ziozkan. Onelako gizona, bere Praile-buruakin, ezin ziteken esagiña ez izan: oregatik ikusten degu Salbador doatsuaren mendetasuna azkaña, itxua ta orokoña zala. Jaungoiko-ordekoari bezela begiratzen zien Praile-buruei, ta begirunez goraltzen zituan; eta komeniu batetik bestera gabez aldatzeko esaten bazioten ere, etzuan itz bat ere aien kaltez esaten. Bere eredia au zan: «Buruari dagokio agintzea, ta mendekoari agindua egitea».

Egizko gabetasun goña ta mendetasuna bezela zan bere apaltasuna: apaltasun au bide etzuan bein ere uste, zerutik ematen zitzaizkion *graziak* merezi zituanik. Apaltasun onen agerbidea, jaun bateri eman zion erantzuna da. «Aita Salbador, begira ezaiozu zure buruari, jendeak ematen dizun omenaz, ez dedila zure burua arotu, gogorapen aroen aizez: alegiñak egin itzazu zure alde, egiten dituzun mirariakatik galdu etzaitezen».

— «Zure Egile-Jaungoikoak onetsi zaitzala: jakin ezazu, ni lasto-zoño bat bezela naizela; ain goratua dago ganbarara daramatenian, ta abere-jan beera jasten dutenean».

On-ona izateko Salbador doatsua lenengo biziera gogokoñetik asi zan, gero, Jaungoikoarekin bat egiñarte, onak erabiltzen dituzten bide guztietatik igarotzen zala. Jaungoikoarekin bat egiñik zegola adibide onek adierazten digu, Horta'ko komentuan bizi zala. Jesus'ek *Sagrario* donetik itz-egiten zion, adizkide mami batek

bezela, ixilketa asko agertuaz. Ixil-izketa oriek, geienez mendi-leiza-zuloan zegoan Kristo Gurutzatuakin, eta aldarean zegoanarekin izaten zituan. Bein praileak aldere aufera uferatu ziranean artu zituzten elkar-izketa auek; baina Kristo Gurutzatuak zer esaten zion ezin ulertu.

Salbador doatsuak tolesgabe itz-egiten zuan, ta Jesus'i esaten zion: «Zuk agindu didazu, ta Zuk egingo dezu, etzaidazu utzi bete gabe zure agindua». Eta jardetsi zuan: «;Nola nere Jauna! Zure itza utsezkoia izanik, ez dezu egingo agindu didazuna? Emaidazu zure Amagatik, aeren dagitzut». Eta Kristo Gurutzatuagana geigo uferaturik esaten zuan: «Zuk agindu zinidan, ta Zuk egingo dezu». Elkarizketa etzan geigo luzatu, Santua zentzu-galdua gelditu zan-ta.

Beragandik Jaungoikoak begiak etzituala al-dendu nai dirudi, ta bere onoimenak beraren *graziz* indartu nai izan zituan. Oregatik aingeruen Eregiña, ditziradun askotan agertzen ziztaion, eta onu (konseju) aundiak ematen zizkion onbideetan irauteko. Baita ikustaldi asko egiten ziozkaten ere Aingeruak, apostoluak eta zoriondunak: emendik zetorkion mirariak egiteko âla, biotz-ekutukiak ezagutzeko argia, etorkizun ta gogorapen ixilen ezaguera.... Salbador doatsuak bide orietatik oneratzen zituan obendun gaixoak.

## IV

*Barcelona'tik Tortosa'ra.—Bellpuig'ra.*

—Lerida'ra.

Eldu zan Jaungoikoak izendatutako ordua, munduak Salbador doatsuaren onoimenak ari-duraz begiratzeko, ta ikusi zein al aundia eman zion Jaunak gizonen alde. Au dala-ta ikusirik praille-buruak zeñen arietatsu artzen zuan onbide ta laztasunerako zan guztia, 1524'gañen urte ezkerro bakartietarako izendatua zegon Tortosa'ko komentura bialdu zuten. (1)

Komentura leku-aldatu zanean, ate-zaitza eman zion lendakariak: eginkizun egokia gaixo ta beartsuei laguntzeko. Bere esku zabala guztiei agertzen zien, itz onak eta irakaspén onak emanaz. Ezin geiago maite-maite zuten beartsuak, ain emankora ta esku zabalekoa ikusita, ta laister asi ziran bere onoimenak adierazi ta ospatzen: alako eran zabaldu zan ontasun otsa, urira eske zijoanean, bera ikusteañen jendea etxeetatik ateratzen zan, ta zorientzat zeukaten bere *habituari* muiñ-egitea.

Ain aundia zan beartsuei zien maitetasuna, bildutako guztia beretakoei ematen zien. Bein lendakariak (Guardianak) agindu zien beste prailiei, atea ondo itxi zitzatela, Salbador anaiak beartsuei ezer eman etzezaien. Lendakariak jakiñik Salbador anaiari norbaitzuek

---

(1) Aita Prantzisko Marka. Katalunya-praille-erkiko edestia



Salbador doatsua beartsuei ogi ematen.

ogia eruz bialtzen ziotela beartsuei emateko, esan zion: «Anai: praileak ere beartsuak gera, ta maitasuna etxetik asi bear da, besteak baño ureragoak gera-ta».

«Aita, ongileak ez didate ogia bialtzen prailiei emateko, beartsuei baizik; prailien ardura Jaungoikoak izango du, ez baita aditu orainarte praileak ez izanean egon izan dirala, ezta ere inork goseak il izan danik».

Egun batean Salvador doatsua eskera joan zan jaun baten etxera, ta jaun onek belauniko jarita esan zion: «Aita, eruki zaite nere semeaz, eta Jaungoikoari otoi-egiozu bere alde». Jaunaren semea alde bietatik etena zan, ta gaitzak ematen zizkan neke-oñazez gañera, giltzurdiñetako min izugarriak izaten zituan, eta aldianaldian ilik bezela geratzen zan. Gure praile ona erukiturik, begiak zerurontz jasota, bere eskuak ezari zituan gaztearen buru gañean, eta agur Maria.... esanaz, sendatuta utzi zuan, inoiz miñik izan ez balu bezela. Baita Tortosa'n ere, *erosarioa* buruan jari beste gabe ta agur Maria.... esanaz, sendatu zuan beste nexka txiki bat.

Eskean asko batutzen zualako, bere zama erazago eramatearen, mando bat eraman zuan berekin; baña mandoa azkatuta arkitu zanean, lau-azkaz etxerantz abitu zan. Salvador'en lagunak mandoa ezin atxiturik bere laguntza eskatu zion. Belauniko jari zan Salvador doatsua, Jaungoikoari otoi-egin zion, eta mandoak etzuan geiago ankarik jaso. Lagunak atxitu zuan, eta Salvador anaiarengana ureratu zanean, onek esan zion: «¡Anai, etzuten para gu-



txi egingo praileak, mando gabe komentura biurtu bagiña! Utzi zaiozu, ez du beñiz orelakorik egingo-ta. Mandoak, bildotxa bailitzan, prailien ondoren jañaitu zuan.

Beste mirari asko egin zituan Jangoikoak bere mirabe zintzoaren santutasuna agertzeko, ta altzairuak burnia bereganatzen duan bezela, Tortosa'ko komentura erakartzen zituan itxuak, goñak, elbañiak, eta abar; eta guztiok bere eskuz ikututa edo onetsiaz sendatuta lagatzen zituan,

Alako gaixo-aldra ikustean, uste zuten praileak, komentu artan Salbador anaiak biztanle jañaitzen bazuan, etzutela pakerik izango, ta Erki-buruagana (Probintzialagana) jo zuten, alegia Salbador anaia zegoan komentuan etzegola pakerik, eta beste komentun batera bialdu zezala, an ezaguna ez izanik, bere mirarien otsarekin jende gutxiago erakañiko zuala-ta. Erki-buruak erantzun zuan, baietz bada: eta Belluig'ko komentura leku-aldatzeko agindupea bialdu zion, an ezaguna etzala izango uste izanik, eta praileak etzirala espatuko.

Jaungoikoak nai duanean, ez da gogor egin dezaiokenik. Jaungoikoak Salbador anaia goratu nai du bere aintzarako ta bere asmoak beti beteko ditu. Ez, ez da ezkutaturik geldituko Salbador anaiaren santutasuna Belluig'ko komentu sukaldean.

Aldi artan Il'gañen Felipe España'ko Eñegeak bere Batzar-nagusira deitu zuan Ramon Folk de Cardona Jauna, Napoles'ko Itxas-alduna. Bildur zan jaun au Eñegearen aũean jartzeko, ta komentuko sukalkiñaren santutasuna jaki-

ñik, berari deituta esan zion: «Anai Salbador, Jaungoikoari otoi-egiozu nere alde, Éregearen biotza bere eskutan dago-ta, eta iritxi zadazu ondo artu nazala».

«Jaungoikoagan ta bere Amagan ipiñi beza beroñen itxaropena—erantzun zion sukalkin gizaxoak—ez dio oyeskaririk egingo, omen aundiak baizik. Beroñen estu aldiak Éregearen aúrean egon arte, ta berarekin izketan asi arte iraungo du: une artan biotza aldatuko dio, ta gozoki artuko du. Ez beza aztu nere itza».

Monzon-urira joan zan bada Itxas-alduna, ta Éregearen eskuari mui-egiten asi zanean, onek esan zion: «Ongi etoñi, Itxas-alduna: ez dira ordu bi, prantzesak Perpiñan'en sartuak dirala iragañi didatela. Jañi zaite bada bidean, artu ezazu bear dezun jendea, ta egizu zugandik uste dedana. Beriz nere auñera etoñi gabe, ibili azkar».

Itxas-aldunaren biotzean sortu zan poz ta atsegiña; ureratu zan etsaiek erasota zeukaten urira, ta Bellpuig'ko bere jauregira biurtu zanean, dei-egin zion Salbador anaiari, ta jauregikoei edestu zien gertatuko guztia: «Praile au ain santua da gertatua aúrez berak esana da-ta».

Etzan luzaro egon Salbador anaia Belluig-urian; laister leku-aldatu zuten Lerida'ko komentura, obeto esateko emengo sukaldera. Baña Belluig eta Lerida'ko sukaldeak. Salbador doatsuaren onoimenak—lore edeñak bezela—azitzen ziran baratzak ziruditen, maitetasuna ta apaltasuna batez ere, Bazekien Jaunaren jakitun legez gertatzen zala guztia, ta lege au bete nai zuan, Jaungoikoaren bilduñekoa

zan-ta. Jaunari atsegin geigo ematen zion, sukalde-orma ilunetan, aundizkien gela-nagusi ederetan baño. Au dala-ta apaindu zuan Jaungoikoak etorkizunak iragarri ta mirariak egiteko âl akin. Onen agerbidez edeslari guztiak dakarten gertaera auxe da.

Lerida'ko ikastetxe-nagusian Juan Ornos zeritzaion gazte bat, Salbador doatsuaren adizkide mamia, bere ikasketak bukatu, ta lege-gizon egiñik, Jerona'n bere etxera joateko eratu zan, ta etxera baño len, praileari azken-aguñá egin nai izan zion. Anai Salbador'ek agur-egiterakoan esan zion: «Zoaz, seme, ta beti Ama Mariaren zalekoñá izan zaite, bere zalekoñá baldin izaten bazera, etzaitu bein ere utziko-ta. Jerona'ra elduta, Cols-enparantzan (plazan) igarro zaitenean begiak jaso itzazu leioetara, ta nexka gazte bat (andereñoa) árez jantzita ikusiko dezu: uraxe izango da zure emazte-gaia».

Eskeñak eman zizkion gazteak praileari, ta Jerona'ra abiatu zan. Salbador anaiak izendatu zion lekuan árez jantzitako neskatxa ikusi zuan; neskatxa gazte au Narziso Torra, sale-rosle aberats baten alaba zan. Etzuan gazteak, orduan beintzat, ezer egin, baña geroago berarekin ezkondu zan. Edestu zuan Ornos jaunak Lerida'n zer gertatu zitzaion Salbador doatsuakin, eta onela zabaldu zan etorkizunak iragartzeko zuan goi-argia.

Lerida'n bertan egiztu zan gertaera onek adierazten digu ere, Salbador doatsuak etorkizunak iragartzeko zuan goi-argia.

Lerida'ko Rubios-lege-irakasleri jaunaren emazteak eskatu zion Salbador doatsuari, áren, Jaungoikoagandik semetxo bat iritxi zezaiola.

«Zu jokurako zalekoñagoa zera—erantzun zion praileak—eta ez dizu Jaungoikoak seme-rik emango, *kartak* uzten ez dituzun arte».

«Ori besterik ez bada—erantzun zion andreak—ez bakañik utzi, eskuz ere ikutuko ez ditut».

Agintza artuta, esan zion andreari, bere obena aitortuta Jaun artu zezala: gero onetsi zuan, eta jardetsi zion: «Orain zoaz etxera, Jaungoikoak alabatxo bat emango dizu; baña gogoan euki ezazu bere biziak zure zintzotasuna ainbat iraungo duala». Garaia etoñi zanean andreak gaztigatu zion praileari alabatxo bat izan zuala. Salvador doatsuak beñiztu zion bere lengo esana, bere alabatxoa baldin bizirik ikusi nai bazuan.

Alabatxoak iru urte zituan garaian, amak alaba Horta'ko komentura eramán zuan Salvador anaiak ezagutu zezan, orduan an bizi zan-ta.

«Umetxoa jakin. ezazu—esan zion praileak—zure biziak, zure amak *kartetan* jokutzen ez duanarte iraungo duala».

«Nere amak—erantzun zion ume tolesgabeak—ez du geiago jokuan egin naiko, ni il ez nadin».

Ez amak, ez alabak, etzuten uste orduan beste gauzarik. Baña beste urte biren ondoren Rubios'en emaztea, bere lagunak jokura deituta, aztu zan prailearen esanaz, eta jokurako zuan griñak menderatuta, jokuan egin zuan.

Umetxoa sartu zan ama zegoan lekuan, eta ama jokuan ikusita ots-egin zuan: «¡Ai ene, ai ene! ¡Ama, ni il bear naiz!».... Gau artan iltzan alabatxoa.

Naigabeak bere uts-egitea ezagutzeko bidea eman zion, eta gaztigatu zion Salbador doatsuari, aŕen, eskatu zezaiola beste seme bat Jaungoikoari; baña albistariak itz-egin baño len, esan zion Salbador'ek: «Badakit zure etxe-ko andrearen alabatxoa bizitoki obeagora igarro dala: biurtu zure etxe-ko andreagana, ta esaiozu, ez dagola beretzat grazirik, eta seme-gabe gelditu bearko duala».

---


*Horta'ra bialdua da - Iragarpena - Mirariak.*

*Odoj ariagarria - Astindu gogorak - Izen aldatzea - Reus'a - Arpena - Mirariak.*

Praile-buruen aginduz Salbador doatsuak Horta'ra leku-aldatu bear izan zuan: emen luzaro bizi izan zalako, datorkio Horta'ko Salbador doatsuaren izena.

Gure bidari gartsua Lerida'tik badijoa bada, oiñutzik, eskuan *eñosarioa* ta gurutzea dituala, zoño-gabe ta makil batekin, Prantzisko donearen Araudiak agintzen duanez: pozez eta atsegintsu dijoa Espiritu Santuaren goi-argi eta beraren laguntzarekin. Horta'ra eldu zanean, aurkezten dizka aita lendakariari mendepeko eskutitzak, eta praile guztiak pozez betetzen ditu. Gero ikustaldi bat egin zion Aldadereko Sakramentu Santuari, eskatzen dio laguntza Ama Mariari, ta Ama Mariaren irudiak itzegiñaz, agertzen dio bere Seme Jesus'ek bere bitartez egin nai, zuan guztia.

Urango egunean Horta'n zeuden atzerietako ordezkariak ikustaldi bat egitera joan zitzaizkion, eta ikustaldi onetan eskatu zioten, bere otoitzaldietan bere alde oroitu zedila. Salbador doatsuak jakiñik goi-argiz zer gertatuko zan, erantzun zien: «Bear-bearekoa dezute jaunak, uzta datoren garaian gari, olio ta abere askoren jabe egitea; eta aldra aundi bat artu al dezaken etxe bat egin ezazute. Jaungoikuak erabakirik dauka, emen mirari asko egiñik, bere esku alguztiduna agertu ta bere Ama Donearen aintza (gloria) goraltzea-ta».



Horta'ko praille-etxea.

Atzerietako ordezkariak aditu zituzten Salbador doatsuaren itzak, baña laborea biltzeko garaia eldu zanean, etzuten ardurarik artu praileak esan ziena egiteko. Egun batez joan zan limosna eske eñira, ta ordezkariak arkiturik esan zien: «Zuek ez dezute gogotan artu esan nintzutena; baña orain esaten dizutet, laister gertatuko dala esan nizuten guztia, Jaungoikuak iragañi didanez.»

Eta alaxe: egun gutxi bañu, gizon da emakume, itxuak batzuek, elbañiak besteak, legartsu asko, min-bizidunak eñuz, urmindun, etenak... eta abar, bi mila ta geigo batu ziran Horta-erian. Eta guztiok prailea ta praile donea eskatzen zuten, eta praile donea ikusi zutenean poz-pozez geratu ziran. Salbador anaiak agindu zien beren obenak aitortu zitzatela, ta alzutenak Jauna artu ere; ta gero belauniko jañiazi zituan eliz-zelai auñean, eliza aiek artzeko aña etzelako, ta eskua jasorik onetsi zituan «Aita Jaungoikuaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean»... Itxuak ikusi, goñak aditu, elbañiak ibili.... ta gaixo guztiak sendatuta gelditu ziran, bakañik bat sendatu gabe geratu zan praileak esana egin etzualako. Aitortu zan bezin laister, besteak bezelaxe, sendatuta gelditu zan.

Agudo zabaldu zan Horta-erian egin ziran mirarien otsa; ta eñi artara joaten ziran gaixoak bi mila ta geiago izaten ziran: Aste guren batez (1) lau mila izan ziran. Eta eñiko etxeetan ezin sartu ziralako, zuaizpe ta leiza zulueta geratu bear izan zuten. Jaungoikoaren ardura

---

(1) Aste Santuz.



aundia zan, alde guztietatik jaki-edariak zi-  
joazten-ta.

An egiztu ziran mirarrietatik batzuek, alik la-  
buñena, emen jartzera goaz. Bein aur jaio-beñi  
ixu bat eraman zioten Salbador anaiari; be-  
launiko jañi zan, eta begiratzez beste gabe  
ikusmena eman zion.

Beste batean komentuko ate-auñean bi mila  
gaixo ta geiago Santuaren auñean belauniko  
jañita zeudela, aien artean mutu bat, mutuari  
esan zion: «esazu agur Maria»: ez lenengoan,  
ez bigañenean etzuan itzik esaten: bere eskua  
mingañean ezañita esan zion: «Aitaren, eta Se-  
mearen eta Espiritu Santuaren izenean, esazu  
Agur Maria»..... Mutua orduan mar-mar  
agur Maria esaten asi zan: mutuak itz-egiten  
zuan.

Migel Goñiera Jerona'ko andizki batek elbañi  
16 urte zeramazkien oiean. Eraman zuten Hor-  
ta'ra Salbador doatsuak sendatu zezan, baña  
or Martorell ondoko «Santa Maria» izendatzen  
dan kabañan ibai erdira eldu ziranean, gaixo  
eramaletako mando bat, oztikoka dana izutua,  
kabañatik erdi aterata zebilen: gaixoa ibaira  
erakañiko zuan bilduñez, Salbador doatsuari  
deika asi ziran guztiak: «¡O! Salbador, o Sal-  
bador, lagun zaguzu zuri deika gaudenoi!». Laister ziran legoñean. Horta'ra eldu ziranean  
bere obenak aitortu zituan gaixoak, Jauna artu  
ere, ta Ama Maria'ren aldare-auñera eraman-  
azi zuan Santuak. Onak ureratuta galde egin  
zion: «Zenbat urte daramazkizu oiean elbañi?»  
«16 urte». Salbador'ek eskua jasota, esan  
zion: «Aitaren eta Semearen eta Espiritu San-  
tuaren izenean jaiki zaite sendatuta zaude-ta».

Etzuan uste gaixoak jaiki zitekenik; baña Santuak eskutik elduta atera zuan jarlekutik, eta esan zion: «Zoaz orain Jaungoikoari ta bere Amari eskeñak ematera, berak sendatu zaituzte-ta». Migel Gañiera jauna Jerona'ra biurtu zan guztiz sendatuta, Jaungoikua goraldiaz, alako âl aundia bere mirabeari eman ziolako.

Jaiotzez mutua zan alabatxobatekin joan ziran Horta'ra euskaldun senar emazte batzuek: (1) aurkeztu zioten beren alaba, ta Salbador doatsuak onetsi ondoren esan zien, zortzi egun an igarotzeko, Ama Mariari gaixoaren osuna eskatzen. Alaxe egin zuten gurasoak, eta laugarren egunean neskatila izketan asi zan; baña ez euzkeraz, Katalunya-eraz baizik. Gurasoak atsegin aundia artu zuten, baña euskeraz etzuala itz-egiten ikusita, beriz Salbador anaiarengana joanda esan zioten: umea izketan asi da, baña ez digu euzkeraz itz-egiten. Santuak erantzun zien: «Ama Mariak mirari au egindu, emen dauden guztiak ezagutu dezaten zuen alabatxoak Katalunya-eraz itz-egiten duala, ta mirari otsa zabaldurik, bere seme Jesus eta Bera geiago goraldtu dezaten. Iraun otoi-egiten zortzi egunetan, nik ere alaxe egingo det». Eta zortzi egun bete ziranenez, beriz umea onetsita gurasoeri esan zien: «Adizkideak, Ama Mariaren naia da, zuen alabatxoak euskeraz ez itz-egitea, luñalde auetatik aterarte; gero euskeraz egingo du». Horta'tik atera ziran bada mirari beria ikusi naizuan jende talde aundiakin, eta Katalunya utzi bezin laister euskeraz asi zan itz-egiten.

---

(1) Ez digute esaten edeslariak nonguak ziran euskaldun oriek. Eusk. O.



Salbador doatsua elbarriak sendatzen.

Epaibidean (1) askok ziñetsitakoa da. Horta'ko komentu-elizatik, egun batez sei burdi makilaz, makuluz, gangarail, zapi-loki ta abar, zamatuak atera zirala, auek guztiak Salbador doatsuaren bitartez osasuna iritxi zuten gaixoenak ziran.

Bere gogarketak saritan Jesus'en nekauzteak izaten zira; oretarako Horta-mendiak zituzten lekurik ezkutuenetara zokoratzen zan, eta an Jesus'ek jaiotzetik Gurutz arte gugatik eraman zituan neke-oñazeak gogoratuta sarixamar ots-egiten zuan: «Nere Jaungoikoa». «Nere Jesus». Eta arpegi danak il-itxura artzen zion, eta bañu-bañundik antzi aundiak ateratzen zituan. Egun oetako batean otoitzean jardunik, gaxoei bere onespina emateko ordua etoñi zan; gaixoak Santua etzetoñela ikusita, deadarka asi ziran: «¡O, Ama gozoa, Erukiaren Ama, Mari beti Birjiña, egizu zure mirabea ikusi dezagula!». Eta odoi arigari batean Salbador anaia eserita etortzen ikusi zuten. jargoi batean bailitzan. *Plazara* eldu zanean odoia aienatu zan, eta Jaungoikoaren mirabeak ots-egin zuan: «Jesus Maria, Jesus Maria. Emen naiz, emen naiz». Eta Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean onetsita, beren gaitzetatik sendatuta gelditu ziran.

Eñi-gizonak asko nai zioten Salbador anaia-ri, ez ordea praileak; auek ezin eraman zuten komentu artako biztanle izatea, komentu batean izan bear duan pake ta ixiltasunik etzute-lako. Onegatik bota zuten Tortosa, Bellpnig,

---

(1) Prozesua. (2) Angarillak.

eta Lerida'tik, onetxegatik bota nai zuten ere Horta'ko praileak.

Erki-burua (Probintziala) etoñi zan aldi baten, añen-egin zioten praileak, Salbador anaia komentu artatik leku-aldatu zezala, komentura zetozen gaixo, elbari ta abarekin ezin burutu zutela-ta. Erki-buruak, Salbador anaiaren santutasuna egizkoa ala ez aztertu nairik, esan zuan ikusiko zuala. Dei-egin zien prailiei aitor-batzañera, belauniko jañierazi zuan Salbador anaia, ta dienen aũean onela itzegin zien: «Nik komentu onetan pake ta ixiltasuna bilatuko nituala uste nuan, baña bestela da, zuen artean galbidea ematen duan oneraspengabeko gizon bat arkitzen dalako. Ta onespengabeko galbide emale ori, zu zera Salbador anaia. ¿Zeren bila zabilta daramazun bizikera oñekin? ¿Ez altzera lotsa, esaten dutena entzutez: *Goazen Horta'ko gizon santua ikustera? Obeto esan lezateke, Horta'ko praileak nastutzen dituan diabrua ikustera.* ¿Ez dezute ikusten, bera dala bidez, besteen aũean zuen buruak beeratzen dituzutela? Esango dutena da: Salbador anaiak mirariak egiten dituenean, besteak ez dute babilio aundirik izango. Nik artuko det bidea zure izena galdu, ta zutzaz aztutzeko, ta besteak onela biziko dira pakean, eliz ta eliza inguruak betetzen dituzten jende-gabe».

«Zoaz ara, praile biguñia, komentuetan izan bear duan pakearen eta atsedenaren nastalea, zoaz ara, emango dizuten *disziplina* artzera». Ta Salbador doatsuak *disziplina* artuta gero, Erki-buruaren aũean belaunikaturik, luñari mun-eginda, esan zion: «Aita, Jaungoikuaren maitetasunez izan bedi guztia: oben-neke au

txikia da, nere obenak eskatzen duten neuriz. -«Tori eskutitz au—jardetsi zuan Erki-buruak-auferantzean etzaizu deituko Salbador, Alfonso anaia baizik. Gaueko amabi-amabietan ir-tengó zera emendik, Reus'ko komentu-bidea artzeko, ta an egongo zera lendakariaren men-dean: neronek esango diot zurekin zer egin.

Artu zuan Aita Erki-buruaren eskutitza Salbador anaiak, joan zan elizara Ama Mariari azken-aguía egitera, ta gaueko amabi-amabie-tan irfen zan Horta'tik Reus'ko komentura al-datzeke. Salbador'en onespenez osasuna ar-tzeko egunaren zai mendi egaletan zegoan jendearen arfetik igaro zan. Artean bazijoan gure santua bidean, oiñutzik, alaitsu, Jesus eta Mariaren izen gozoak ezpañetan zituala, ta ituíri batera eldu ziranean, lagunari esan zion: «Atsedean egin dezagun emen pizka bat». La-gunagandik alde-eginda, otoitzean jardun zan. Lagunak bere patxaraz eta atsegintasunaz ari-turik galde-egin zion: «Zer esan nai du ajolka-betasun o'rek Alfonso anaia? ¿Galdu ote dezu sentzumen guztia, gure Erki-buruak esan diz-kizun itzak gogoan ez artzeko?».

«¿Erukaria ni! ¿Aita Erki-buruak nik merezi bezela zigortu izan baniñu?—erantzun zion Salbador'ek—. ¿Ez aldakizu e'regearen biotza Jaungoikoaren eskuetan dagola, ta Berak nai-gabe ez dala zuaitz baten ostu-o'irik erortzen?».

Urango gaberako eldu ziran Reus'ko komen-tura, ta ango a'era etzan goxoago izan, Hor-ta'n egin zioten azken-aguía baño. Gogorki artu zuan aita lendakariak; baño Salbador anaiak eramanpenaren oiñariak ondo eza'ita zeuzkan, eta Jaungoikuaren naia egiteko era-

tua egonik, edozein gertaera ta eginkizun atsegintsu ta gogokoa izaten zuan.

Salbador anaiak eman zion Aita Erki-buruaren eskutitza, ta au irakurita, prailiei dei-egirik, esan zien: «Emen eldu da, Aita agurgariak, mendetasunez, Horta guztia bere mirariak dirala-ta, nasturik zeukan anaia: agintzen dit Aita Erki-buruak, aurrerantzean ez Salbador deitzeko, anai Alfonso baizik, jendeak ezagutu ez dezan. Eta zu nik jariko zaitut, inork ikusiko etzaituan lekuan, oitura dezunez jendeekin izketaratu etzaitzen: onetarako agintzen dizut mendetasun doneaz, ez dezazula itz-egin efi-jendearekin.»

Urango biaramonean, goiz-goiz elizan arkitzen zan Alfonso anaia, gaua otoiegiten igarota, eta sukaldera eraman zuan. «Emen prailien bazkari-maniatzen lapikoakin egin zinitzake mirariak: jakin bear dezu, ez dezula praile soñekoa jantzi, alperkeriz kanpoan ebilita, mirariak egiteko, jendeak goraldu zaitzan.»

Baña Jaungoikoak nai duenean, ez da inor eragotzi dezaiokenik.... Luzaro baño len bi mila gaixo ta geiāgo etori ziran komentuko ate ondora, ta dienak Horta'tik etori beria zan Salbador anaia ikustea eskatzen zuten: Gaixoak deadarka zioten: «Aita praileak, Jaungoikoaren maitetasunez etzaiguzute ezkutatu Santua: eruki zaitzete gaixo auetzaz, eta utzi zaitezute onera etortzen, bere onespenez sendatu gaitezten.»

Eramanpena ez da gizoztearen onoimena, eskatzen dutena uko zaietenean batez ere. Ta gizozteak Salbador anaia azaltzen utzi nai etzute ikusirik, ateak orpotik aterata komentuan

sartuko ziralazematu zuten. Praileakj oan ziran azkar Aita lendakariagana, ta esan zioten zer gertatzen zan. Lendakaria sukaldera joanda, gogorki aseŕe biziz eraso zion, esanaz: «Esai dazu, praile nastari oŕek, zer bide artu dezun. emen bizi zerala jendiari adierazteko. ¿Nola jaŕi zera ain laister gure kontra? ¿Emen, emen egongo zera zure eginkizunak betetzen; etzera ez joango, kaŕika oietara mirariak egiñaz!».

«Ez aseŕatu, ez aseŕatu Aita Lendakaria— esan zion Salbador anaiak— nik beroŕek nai duena egingo det-eta».

Artean gizoztea geitzen zijoan oju ta deadarka, aŕen, Salbador anaia aurkeztu zedila esanaz; eta alako batean, beren ezin eramana galduta, elizako ateak orpotik aterata beera bota zituzten, eta *sankristi* aldetik ugoldeak bezela komentuan sartu ziran. Orduan utzi zion aita lendakariak sukaldetik irteten jendea baretu zezan. Santua ikusi zutenean otzandu zan gizoztea, ta asaldatzaleak obeto asnasa artu, ta beren biotzak atsegin aundiagoa artzen zuala nabaritu zuten. Onela itz-egin zien Salbador anaiak:

«Nere anai maiteak: Jaungoikoak zuen eskariak entzun, eta zuen gaitzak sendatu ditzan, Bera naigabetu izanaren damu izan ezazute, ta ez geigo naigabetzeko asmoa artu, ta nik bere mirabe gai-ez onek Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean nere onespena ematen dizutet».

Gaixoak sendatuta gelditu ziran eta eŕia pozez: pozez geratu etzana aita lendakaria zan, eta esan zuan: «Aita Erki-buruak Horta'tik leku-aldatu du komentuko pake ta ixiltasuna galtzen



zualako, ta emen ere orobat egiten du. Idaztera ni joakio esanaz, beste komentun batera aldatu dezala».

Norbaitek galde-egin dezake: ¿Ez al zuten bada nai Praile-buruak eta besteak Salbador anaiak mirari ta mirari aundiak egiterik, oren gogorki artzeko? Jesukristoren eta Jesukristoren ondorengo Santuen buruetan dizdiz-egiten duten *koroiak* izar diztikoñaz egiñak izan baño len, odoldutako arantzez egiñik egon bear izan dute. Garaipena baño len da eramanpena. Jar goira baño len, igo bear du batek gurutzera. Au dala-ta nai izan zuan Jaungoikoak Salbador'en onoinenak aztertutak izatea, gero ta gero beren izakera garbiturik, bere buruan jañi bear zuan *koro*i aintzatsua diztikoñagoa izan zedin.

Egiz; Ordenako Buruak Salbador anaiak egiten zituan mirariak, eta mirariak eruz, ikusten zituzten, eta bere santutasun eta onbideak ontzat ematen zituzten; alarik ere arokerizko aizeak ainbat jota, goitik beera bota izan ditu, artzai ernai ta beren semearen maitatzaleak ziranenez, gizozte ta erien goraltzen aize gaiztoetatik zaitu nai izan zuten. Au dala-ta ezagutzen dutenean, aundiuste ta arokeriak ez dezaketela ezer egin, eta Salbador doatsuaren santutasuna apaltasunaren oiñari bizi ta sendoan ezañita dagola, orduan bialduko dute Jerona'ra, uri aue-takoak eskatzen duten bezela, gaixoak sendatuta uri-gizonen poza izan dedin; eta Il'gañen Felipe España'ko Eregeak Santua ezagutu narik, Madrid'a bialtzeko agintzen baldin badie, pozez bialduko diote Eregeari, Eregeak ezagu-

tu ta bere naia bete dezan. Orduan bukatuko dira Praile-buruak egiten zituzten azterketak, eta Salbador doatsuak jarraituko du danoi «on-egiñaz gaixuak sendatzen».

Dañaioten mirari auek geitu zuten Reus'ko biztanleak Salbador doatsuaren santutasunaz zuten iritxia. Reus'ko komentuan il-lañietan zegon Juan Serra aita, sendatuta eriotzaren atzaparetatik bat-batean onez atera zuan.

Baita iltzeko zorian zegon ume bat ere sendatu zuan. Bere aitak Salbador'en oñetan belauniko jarita negaiez eskatu zion, airen bere semetxoaren osasuna iritxi zezaiola. «Zoaz Ama Maria Done-doneari eskeñak ematera—esan zion—berak sendatu du-ta.

Gizon bati, erituta puñala bular gañean sartua utzi zioten, sendagileak etzuten ausardirik kentzeko, kentzean oñazez il etzedin. Salbador'ek esan zion, bere ustea Jaungoikoagan eta bere Amagan ipiñi zezala, ta gurutzearen *siñalea* eginda, *puñala* berez aterarik, iltzeko zegoana sendatuta gelditu zan.

Etziran emen bukatu prantziskotar Santuak egin zituan mirariak Reus-urian; baña ezin ditezke danok edestu.

## VI.

*Bidari beriz ere.-Alde guztitan on egiñaz.*

*Montseñat'en.-Barcelona'ra eldu da.*

*Inkiszio-auzitegian.-Mirarien jañaipena.*

---

Reus'ko praile-lendakariak bere komentua pakean euki nairik, eskatu zion Erki-buruari, Salbador anaia, beste komentun batera, añen, aldatu zezala. Erki-buruak onartu zuan lendakariaren eskaria, ta bialdu zion bere aginte-eskutitza anai doatsuari, Barcelona'ko «Santa Maria de Jesus» komentura biztanle aldatzeko. Albiste au pozkañia izan zan Reus'ko komentuko biztanle bakarti ixil aientzat, baña ez uritañentzat: emen agertu biar izan zuan Salbador doatsuak bere mendetasun eta eramantpena.

Irten zan bada Reus'tik Barcelona'ra aldatzeko, ta bere biotzean geideaganako maitetasunak geiago su-emanik, alde guztietan on egiñik eta gaixoak sendaturik zijoan. Tarragona'tik igaro zanean, mota askotako gaitzak jota zeudenak sendatuta utzi zituan. Rodoña-gaztelutik igaro zanean, ikusmena eman zion nexka itxu bati, ta legortzen ditu artzai baten malkoak arkume bati anka autsi ziolako: abere gaxoa sendatuta utzi zuan. Bilafranka de Panades'era eldutakoan, itxu bi aurkezten dizkate sendatu ditzan: «Semetxoak—esan zien—joan zaitzte Montseñat'era urian dagon eskero, ta uste guztia ipiñi Ama Mariagan, berak sendatuko zaituzte-ta. Ni ere joango naiz ikustaldi

bat egitera».

Itxu biok joan ziran bada, baita Salbador ere, ta onek bera inguratzen zuan gizozteari ezan zion: «Bi itxu auetako bat sendatuko da fede bizia dualako; baña ez bestea, itxu geldituko da bere fedea epela da-ta».

Fede gutxikoak bidean esaten zion besteari: «Praile onek bururik ez du, berak sendatzeko almena baldin badauka; ¿zer dala-ta bialtzen gaitu Montseñat'era, arkaitz tarte auetan burua austeko arixkuz? Emen ezin sendatu bagaitu, ez gaitu sendatuko Montseñat'en ere».

«Nik sinisten det—erantzun zion lagunak—praileak esan diguna, ta uste det zeruko argia laister ikusiko dedala».

Eta argia ikusi zuan: Montseñat'era eldu zanean bere obenak aitortu zituan, eta apaizak *Ostia* donea eskuan artuta, «*Domine, non sum dignus*» esaten asi zanean, iritxi zuan ikusmen-doai edera. Bere fedeak sendatu zuan... Bestea len bezin itxu gelditu zan.

Eldu zan Salbador anaia, agindu zuan bezela, Montseñat'era, ta an itxaroten zioten alde guztietatik batu ziran gaixo-ozteak. Izan zan norbait Santua Reus'tik irten zanean, eriz-eri bere etoñera, ta egiten zituan mirariak adierazten joan zana: au dala-ta Montseñat'era eldu zanean Santua, gizozteari irudi izan zitzaion, aingeru bat eldu zala, ta dienak pozez bete ziran, Jaungoikua ta bere Ama goraldiaz: eta guztiak, batez ere itxuak, abesten zuten:

Horta'n, Birjin-Andrea,  
Jaungoikoaren Ama,  
Alatz andik ein ditu  
Salbador-bide jaunak.



Salbador doatsuak itxuari ikusmena ematen dio.

Entzun zituan Serafin gartsuak, eta aintza (gloria) guztia Jaungoikoari ta bere Amari ematen zitzaiola ikusirik, asko poztu zan Espiritu Santuagan.

Elizan sartu zan, eta zeruko Erégiñaren Iru-di aurrean belauniko jarita, luzaro otoi-egiten jardun zan: gero gizoztea gana zuzendurik, esan zuan:—«Erükizko Amaren etxean arkitzen gera—nere anai maiteak—eta aroa izango nintzake ni, baldin zuen aurrean egingo banu, zuek opa dezurena. Joan bedi bada Beragana poza artu nai duana, ta artuko du poz au, ta bere gaitzetik sendatua geldituko da. Baña bea-bea-ko da, aurrena zuen obenak aitortzea ta Jauna artu; onela eratuko zerate bere ongiak artzeko, Eruki ta *Graziaren* Ama bera da-ta». Onela itz-egin zien, eta etzien, oitura zuan bezela, bere onspena eman nai izan. Baña ain atsegingarria izan zan Santuaren apaltasun au, gaixo aiek guztiak sendatuta gelditu ziran. (1)

Birjiña Mariari zion zaletasunez gogo-bete zanean, ostera bideari ekin zion, eta Barzelona'ra eldu zanean gogorki artu zuan Aita Erki-buruak, prailiei agindurik Horta ta Reus'ko lendakariei agindu ziena, au da, sukaldean edo beste leku itxi batean euki zezatela. Ta edes-lari batzuek diotenez, Reus'ko lendakari bera erakari omen zuan Barcelona'ko «Santa María de Jesús» komentura bere agintza obeto bete zedin. Baña etzan bein ere espatu gure bildotx otzana, ezta iñoiz itz bat esan ere bere agintarien kaltez: bestela Jesus eta Mariaren izen gozoak españetan zituala, oitura zuanez,

---

(1) Aita Domenech, Katalunya'ko Santuen edestian,

alaitsu, asefege, naro zegoan alde guztietan, bere onbideaz danoi ikasbide asko ematen zizkiela; alako eran beren oiturak onduta onera biurtzen ziran.

Baña ekaitz gogoñak erasoten zioten nonai. Bein *Inkisidore* jaunari salatu zioten, deabruaren bitartez mirariak egiten zituala. (1) Epai-bidea eratu zioten artean, etzan espetxean (kartzelan) egon Salbador doatsua, etxe-bañenean baizik, agerbideak egun gutxi iraun zuten-ta. Epai-leak esan ziotenean zergatik salatua izan zan, erantzun zuan: «Jaungoikoa bakarrik da mirari oriek egiten dituana, obendun argal bat besterik enaiz ni».

*Inkisidoreak* egiaren argibeak artu nairik, irten ziran gaixo asko zeuden gela-nagusi batera, ta esan zioten: «Egingo al dezu gurutzearen-*siñalea* itxu ta gor orietan». «Nik egingo det, esaten didatena» erantzun zuan, «Egizu bada» jardetsi zuten *Inkisidoreak*.

Eta Salbador anaiak egin zuan gurutzearen *siñalea* itxuaren begi ta goñaren belaritan, eta itxua ikusmenakin, eta goña entzumenakin gelditu ziran. Ikuskañi au zala-ta belauniko jañi ziran epai-leak, mun-egin zioten santuaren soñekoari, ta malko mardulak ixuriaz, etziran lotsa izan esateko, Jaungoikoaren aurrean beren alde, añen, otoi-egin zezala. Ta azketsirik, Aita Erki-buru ta aita lendakariari agindu zioten, aurreantzean etzezatela itxita euki, ta kan-

---

(1) Alaxe dakarte: Aita Serpik «Cerdaña'ko Santuen edestian; Aita R. Bosch - Katalunya'ko erki-edestian; Aita Vital'ek bere «Madre Perla'n»; Aita Serki'k «Vita Miracolí e culto del Bto. Salbador de Horta».

pora irteten utzi zezaiotela beaŕean zeudenak bere mesedeak artu zitzaten. Baita bere alde jaŕi ziran ere obispo jauna, Eŕege-ordekoa, Barcelona'ko lege-gizonak, eta efi guztia.

Ezin zenbatu ala dira, Barzelona'ko epaibideak diotenez, Jaungoikoak uri onetan egin zituari mirariak bere mirabe zintzoaren goratzeko. Batzuk jaŕiko ditugu.

Juan Oliba zeritzaion «Santa Maria de Jesús» komentuko anaia, belari batean zorne-gaitz aundi batek jota zegoan: sendakai guztiak emanaren, sendagileak ezin ezer egin zuten. Ikutu zion Salbador doatsuak min zuen tokia, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.... eta berealaxe bat-batean sendatuta gelditu zan.

1664'gaŕen urtean Isabel Pujadez andrea, artean umea zala, Barzelona'n bizi zan, eta Salbador doatsuaren bitartez, eriotzaren atzaparŕetatik azketsia izan zan, begira nola:

Itun zegoan umearen aita, gau artan umea ilko zala, sendagileak esan ziotelako, ta gizona Salbador anaigana joanda, esan zion, aŕen bere etxera joan zedila, ta umetxoa onetsi zezala; «Zoaz eta esaiezu sendagiliei ez dutela Jaungoikoarekin itz-egin, gau onetan umea ilko dala esateko. Baita esaiezu ere amari ta aidiei, Ama Mariari eskerak eman dezaiozketela, oŕen aguro sendatu dualako: esaiezu gañera, ezkon-duta semeakin ikusiko dutela. Eta guztia alaxe gertatu zan. Umea sendatu zan, bere aita Salbador anaiarekin izketan azi zan une artan, eta ezkon-adiñera eldu zanean, ezkondu zan, eta ama izateko zoriona izan zuan.



Barcelonan bizi izan zanartean ere, Salvador doatsuak igarlea zala aditzera eman zuan.

Pedralbes - komentuko moja-buruak — Sor María de Torrella izenez—Salvador doatsuari eskatu zion, aŕen bere alde otoi egin zezala: eta onek erantzun zion: «Jaŕri zaite Jaungoikuaren eskuetan eta Beragan itxaro ezazu, bere maitetasunez gauza aundia egin zenualako, mesede aundiak egingo dizkizu-ta.

«Ni pekatari aundi bat naiz—erantzun zion mojak—eta ez diot nik jopu aundirik egin Jaunari, onegatik saria emateko.»

«Oroitu zaite—jardetsi zuan Santuak—emen leku ontan bertan, zure aitak Aita Santuaren eskutitza eman zizunean komentutik aterata etxera eramateko, ta zuk apurtuta sutara bota zenuenean, zer esan zenuan: «Ez dezatela Jaungoikoak eta Ama Klara doneak nai, ni komentu ta *erlijiotik* ateratzea, ezta galdu ere, Araudia zaitzez Jaungoikuaren erukiz itxaro dedan *koroia*». Aŕiturik geratu zan moja itz auek entzutean, berak eskutitz onetzaz etzuan iñorekin itz-egin-da.

«Egipen goragaŕi onegatik maite-maite zaitu Ama Klara doneak, eta zeruan ez ditu bere begiak aldentzen zugandik»—jardetsi zuan Salvador anaiak.

Jeronima de Cardona zeritzaion Pedralbes -komentuko moja-buruak eskatu zion Salvador anaiari, gudara joan ziran bere anai ta lengutsuaren alde bere otoi aldietan, aŕen oroitu zedila.

«Zure lengusu Federiko jaunari eman dio jaunak bere saria—erantzun zion Santuak. Zure

anai Juan lotuta dago Kostantinopla'n, baña ez  
eztutu ofegatik, laster azkatuta Felipe Eregeak  
goretsia izango da-ta».

«¿Nere lengusua ila dala diozu?»—esan zion  
mojak.

«Jaungoikoagatik eta fedearen alde il diranak  
ondo sarituak izaten dira—jardetsi zuan Sal-  
bador anaiak—eta ezin genezaieke ilak deitu». Laister izan ziran Federiko ila zala, ta Juan  
espetxean zegolako beñiak: Jeronima mojak  
ziñaldu zuan au guztia, Salbador'en onoimen  
eta mirarietzaz egin ziran epaibidetan. Ordu-  
rako Juan, Il'gañen Felipek, Nabarrako Erege-  
orde izendatua zeukan.

Bere onoimenetzaz egin ziran epaibidietan  
irakurtzen da, Barcelona'ko «Santa Maria de  
Jesus»'en biztanle zala, negu batez, egundaño  
ikusit etzan elurtza egin zualako, egun gogor  
batean komentuko orma gañetan txori talde  
aundi bat ikusi zala: txoriak ala ikusita, erukiz  
joan zan atxika sukaldera, ta ogi puska bat ar-  
tu zuan, eta atarira irten-da, gurutzea egiñaz,  
deitu zien txoriei, ta esan zien: «Atozte Jaun-  
goikuaren izakiak, atozte gaixo oriek, artza-  
zute zuek ere Jaungoikuaren *limosna* gose ze-  
rate-ta. ¡Atozte agudo!». Txoriak orma gañak  
utzita, Salbador anaia zegoan lekura egan egin  
zuten, eta dienak buruan, bizkañean, besoetan...  
jañi zitzaizkion, mokuak eta egoak zabaltzen  
zituztela, Santuaganako ustea agertuaz. Eta  
Santua ogia apurtuta ematen jardun zan. Une  
artan bele bi leku-aldatu ziran «krua-krua» e-  
giñez; eta Santuak dei-egin zien, esanaz: «A-  
tozte zuek ere *limosna* artzera». Egin zuten



Salbador doatsua Jesus-Gurutzatuarekin izketan.

beleak bere esana, ta Salbador'en besoetan ja-  
ri ziran: eta txoriei emateko eskuan zeuzkan  
ogi apurak kendu nairik, ots-egin zien: «Egon,  
egon beleak, zuei puzka aundiagoa emango  
dizkizutet, moko lodiago dezute-ta». Ta bakoi-  
tzari puzka bat emanda, esan zien guztiei:  
«Orain jan dezute bai, ta zoazte pakean, eta  
Jaungoikoak onetsi zaitzatela». Ta berealaxe  
egan alde-egin zuten, ikusten zutenak aritzen  
zirala.

1560'gañen urtean Aita Erki-buruak Jerona'ra  
leku-aldatu zuan, uri artako batzuek eskatzen  
zutelako. Aingerua bezelatsu artu zuten jeronan-  
tañak, bai santu-otsa zualako, bai beragandik  
atsegin asko artzea uste zutelako. Izan ere,  
mirari aundiak egin zituan Santuak. Batzuek  
esango ditugu.

Klara Donearen komentuan, moja asko gai-  
xorik zeuden: au zala-ta eskatu zioten uri arta-  
koak Aita Erki-buruari Salbador anaia ara al-  
datu zezala. Moja aietako bat aspaldi luzean  
eten-miñaz zegoan, eta etzuan lotsaz ausardi-  
rik sendagileai esateko; baña Salbador anaia-  
kin izketaratu zanean, ixilpean agertu zion bere  
gaitza. Gurutzearen *siñalea* egin zuan Salba-  
dor doatsuak, moja bañendik zegoan aldera, ta  
berealaxe sendatuta gelditu zan.

Jeronima Camps, komentu artako moja-gaia  
elbarri zegoan. Joan zan Santua komentuko iz-  
tokira, ta eskatu zuan gaxoa bere auffera ekañi  
zezatela. Mojak beste elbarri bat aurkeztu zio-  
ten. «Ez da au eskatu dedana—esan zuan—.  
Onak ez du bear-ainbat fede sendatzeko; bes-  
teagatik etoñi naiz onera». Orduan aurkeztu

zioten eskatu zuana, ta Santuak bere *efosarioak* jaunartzeko leyo-zulutik gaixoaren buruan jartzeko emanaz, esan zuan: «jaiki zaite Aitaren eta Semearen eta Espritu Santuaren izenean, eta zoaz lenengo Ama Mariari eskeñak ematera, ta gero fede gutxiz ezin sendatu izan dana zaitzera».

Jaiki zan elbari egon zan moja-gaia, joan zan Ama Mariari eskeñak ematera, ta gero maitefasun aundiz zaitu zuan fede gutxi izan zuana. Beste mirari asko egin zituan Jerona'n.

---

## VII

*Eregeak Madrid'a dei-egiten dio.-Madrid'tik  
Palencia'ra.-Gandia'n.-Barcelona'ra.*

---

Bakalduriraño (Korteraño) eldu zan Salbador doatsuaren santutasun-otsa; ta Il'gañen Felipe Eregeak eta bere emazte Isabel andreak prantziskotar praile ber-bera ezagutu nairik, Ordenako Buru Prantzisko de Zamora Aitari eskatu zioten, Salbador doatsua Madrid'a añen bialdu zezala, bera ezagutu nai zutela-ta. Ordenako Buruak agertu zion Eregeen eskapena Katalunya-erkiko Buruari, ta onek agindu zuan Salbador anaiak Madrid-bidean artzeko, ta an erege-jauregian aurkeztu zediñ.

Baña Barcelona'tik irten baño len Ornos jaunaren eskutitza artu zuan. Ornos jaun oneri, boskaren irakurburuan esan dan bezela, bere emazte izan bear zuana iragañi zion, eta eskutitz onetan esaten zion, Eregeen aurrean beraren alde egin zezala. Santuak erantzun au egin zion: «Jesus Maria. Jaungoikoak nai baldin badu ni Gaztelera joatea, nik al dedana egingo det zure alde Eregeen aurrean. Uste guztia ipiñi ezazu Jaungoikoagan: Berak onetsi ta bere eskutan euki zaitzala. Barcelona'ko «Santa Maria de Jesus» komentutik *Santa Cruz* egunez. Salbador anai ezerezak. Jesus Maria». (1)

---

(1) Aita Vital'ek bere «Madre Perla Serafica»'n dionez. Aita Serpi'k arkitu zuen Jerona'n Salbador doatsuaren onoinen ta mirarien epaibideak artzera joan zanean,

Bere Praile-buruen aginduz, ekin zion bada bideari, baña biderako ezer artu gabe, gabetasun goñian Goiko arduran bere burua jañita.

Bidaldi onetan ezagutu zuan Salbador anaiak maurutañak kristau egin zirala, ez Jaungoikoaren maitetasunez, beren ondasunen jabe izateagatik baizik. Agiriz kristau agertuañen, bañañian mahomañak zirala, ta Africa aldekoakin ondo etortzen ziranenez, dienak eratuak zeudela XVI'gañen eunkian VIII'gañenean egin zutena egiteko. Ta au dana ezaguturik onela agertu zuan bere naigabea. «Etoñiko da España'ko luñalde guztietan, zoko bat utzigabe, jende orien abotsa aditu ta aztarnik agertuko ez dan eguna. Jaungoikoaren Ama done-donea, itzuli itzazu gugana zure begi erukitzu oriek, eta zaitu gure España zñezketasun guztietatik: zaitu ¡O Andre goragaña! deabruaren erasoetatik, eta zaitu beti zintzo ta *katolika*». Bere lagunak ikusirik Salbador'en begietatik naro malko mardulak zijoazela, galde-egin zion: zer dala-ta egiten dezu negar?; eta erantzun zion: «España suge gaiztoz beteta dagolako; baña Jaungoikoak garbituko du, ta ez du kalterik egingo beren pozoi txañak».

Madrid'a eldu bezin laister, lenengoz ango komentuko praile-lendakariaren onespena artuta, eñege-jauregira, Felipe ta Isabel'en auñera eramana izan zan, eta agur egin zien Katalunya izkeraz: «Beon Egile-Jaungoikoak onetsi bizaitzate. ¿Zer on aterako dute Aita Prantzisko donearen sukalkin gizaxo bat ikusteakin? Jesus Maria».

Prailetxoaren arpegian atzaltzen ziran zintazun diztikor eta izkeraz liluraturik gelditu ziran

Erege-Eregiñak eta berari begira alditxo batean egonda, Eregeak erukiz burupeko bat ekartzeko agindu zuan Santua eseri zedin: -Aundizkiei ere egiten etzaien omena-. Etzuan Santuak ezezkorik esan, eta oi zuan zindasunez, eta goi-argiz, oinpean jañi zuan burupekoa, ta bere oiñen idantzezkiak utzi zituan burupekoan.

Eregeak onela itz-egin zion: Entzun dituzure bitartez Jaungoikoak egiten dituan mirari ta gauza arigariak; eta gizartean dabilen zure santutasun-otsagatik, naiki biziak neuzkan zu ezagutzeko: eskatu ezazu, eskatzen dezun bezela, nitzaz, nere sendiaz (familiaz) eta bakaldeñi guztiaz; gogoratu zaite zure otoi-aldietan, eta añen egiozu Jaungoikoari, bere mendean eta fede *katolikoan* beti-betiko gorde gaitzala» «Jauna,—erantzun zion Santuak—ain ona da Jaungoikoa, ori guztia egingo du bere Amaren bitartez; Beraganako oneraspen aundia izan beza, Goikoak egiten dituan mesede ta ongi guztiak, beraren eskutik artzen ditugu-ta. Ta Jaunak gizaki ezerez onen bidez egiten dituan mirari ta gauza arigari orietzaz esan bear diot, beroñen aunditasunak egiten duana, egiten duanla Berak ere: beroñek batzuetan mirabe kaxkar batez egiten ditu bakaldeñiko eginkizunik aundienak; alaxe Berak ere. Eskier egon bedi, nik, ezereza banaiz ere, beti eskatuko diot Jaungoikoari Bera obeto goraltzeko *grazia* eman dezaiola, taberoñen bakaldeñiak, zorionez. sendo ta gogorki fede *katolikoan* iraun dezala».

Salbador anaiaren espain garbietatik atera ziran itz auen indañez, Eregearen begietatik malko mardulak zijoazen, bere itz aldia luzatu



zuan bere oneraspena gogo-bete arte ta ikusirik bere biotzean izan zituan maitekiak, beñero bere aurrea erakari zuan.

Begirune aundiz gorde zuan Bakaldun-sendiak Salbador doatsuak bere oiñak ezañi zituan burupekoa, ta *relikia* bezela euki zuten bere bitartez zeruko *graziak* irixteko. Eta etzan utsean gelditu beren itxaropena: su-eri gogor batek artuta zegoan Eregiña, ta sendakai guztiak etzutela balio ezer ikusirik, Santuaren burupekoa eskatu zuan, eta Salbador doatsua-gan bere ustea jañiaz, ezañi zuan burua burupekoan, eta berealaxe sendatuta gelditu zan. Pozez gelditu ziran mirari au ikusi zutenak. *Reliki* onek gauza arigariak egiten jañaitu zuan gero ere....

Salbador anaiak Erki-buruak agindu ziona eginda, ta Eregearen baimena arturik, Madrid' tik Palencia'ra leku-aldatu zan Prantzisko Zamora, Ordena'ko Buru agurgariak agindu zionez, ango praile-batzar Buru zan-ta.

Lenengotik atsegin aundiz artu zuan Ordenako Buruak; baña.. irudi-egin ezazu, irakurle, uri guztia bero-bero komentura dijoala, ta korika, eliza, ta emparantzak (plazak) betetzen dirala Salbador doatsuari txaloak, gorak, ongietoriak emateko; irudi ezazu Santuaren oñetan Erege-ordeko ta bere emazte ta aundizkiak belaniko daudela: au dana ikusten du Zamora aita agurgariak; eta baliteke ere itz oek, edo oen antzekoak esatea: «Onetsia izan bedi Jaungoikua! ;Zeñen buru-ariñak diruditen palentzitar auek! ;Ez dezute ikusten ze gorak eta ze ongietoriak egiten diozkaten praile kaxkar ori?».

Baña Ordenako Buruaren mindura-gaia izan

zan Praile-batzaña egin da gero, Batzañ-praileak eta gañerako komentu-anaiak eliz-nagusira Jaungoikoari eskeñak ematera joan zira-nean. Gizozteak igari zuan praile artean izango zala Salbador doatsua ere, ta beren eren-kadak autsita, aien artean sarturik, bere oiñeri mui-eginda, soñekoa (habitua) puzka ta puzka kentzen asi ziran, eta lañu-goñian utziko zuten noski, praileak etxe batera eramanez ez balute, beste soñekoa jazteko. Ta zerutik jetxitakoari bezela begiratzen ziotelako, deadarka esaten zuten: «;Agertu bedi Santu ori, ta betor gure gaitzak sendatzera!. Amor-egin zuan bada Buruak, eta eramanez asko bear izan zuan, Jaungoikoak, prailearen bidez, ainbat mirari egiten ikusteko.

Gandia'ko *Dukeak* eskatu zion Zamora Aita agurgañari, Salbador anaia, añen, uri artara bialdu zezala, bai uriaren pozaldirako, bai «Santa Klara» komentuko mojei laguntzeko, komentu artan deabruak ateratzen zituen zalaparta, ta aurkezten zituñan irudi gaiztoakin, moja gaxoei otoi-egiten etzien lagatzen-ta,

Ordenako Buruak aginduta, joan zan bada Gandia'ra, ta komentuan sartuta laister, agindu zien deabruei Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean atera zitezela andik: «Jaungoikoaren eta bere Ama goragañien izenean agintzen dizutet, leku onetatik alde-egin dezazutela, ta Jaungoikoaren mirabeok nekazartera, etzaitezela bein ere etoñi». Ibili zan gero gela guztietan gurutzearen *siñalea* egiñaz, eta esan zien mojei: «Pakea izan ezazute, nere añebatxoak, eta alegiñez Jaungoikua gorraldu ezazute: nik itz-ematzen dizutet, etzerate-

la auferantzean galaraziak izango, ta ez dituzutela zuen oi bizikera nastutzeko deabruak asmatzen dituan zalaparta, ta irudipen gaiztorik nabaituko. Jaunaren pakea izan bedi zuekin, eta otoi-alditan oroitu zaitezte nitzaz».

Komentua deabruen araso gaiztoetatik azkatua gelditu zan: eta Salbador anaia Gandia'n Jaungoikoaren mesedeak naro-naro egin-da, Barcelona'rako abiatu zan, Valencia'ko *murala* atzetik igarota, Ordenako Buruak aginduzionez, eta danoi on-egiñaz eta gaixoak sendatuaz eldu zan, Felipe Éregearen aginduz utzi zuan lengo komentura.

---

## VIII

*Cerdeña'runtz itxas-ontzia arzen du.  
Ekaitz izugariak. —; Begira begira!  
Caller-urira eldu da. —Iragarpen  
eta Mirariak.*

---

Salbador doatsuak España'n 25 urte igarota, mirarien diztiraz, bere onoinenen usai gozoa zabalduaz, eta guztien gorak eta txaloak artzen zituala, Jaungoikoak beste luralde batera leku-aldatu nai izan zuan, emen bezela an ere, bere onoinen eta mirarien bidez, beraren *gloria* goretsi nai zuan-ta.

¿Zer dala-ta utzi zuan gure Santuak bere praile-erkia ta aldatu zan Cerdeña'ra? Edeslari batzuek diote prailien ezin ikusiagatik zala, besteak Katalunya'ko Erki-buruak ara erbesterratu zualako. Lenengoak Santuak eraso oiek eramateko, adore gutxi zuala esan nai dutela dirudi: besteak gogoarin eta ezjakiña zala Erki-burua, bere mendeko bat berak aginduko etzion lekura bialtzeko.

¿Ze bultzagai izan zezaken bada onetarako? Salbador anaiak izan zuan bultzagaia luraldeok utzita Cerdeña'ra joateko, itz gutxitan agertzen digu Gonzaga Aita agurgariak: «Bere luraldekoen gorak, eta txaloetatik iges-egitearen leku-aldatu zan Cerdeña'ra, txaloen artean santutasunik goratuena arixkoan bai dago». Gañaera jakiña da leku-aldatze ura Jaungoikoaren nai agiriz izan zala, dañaikion elkarizketatik ikusiko dan bezela.

«Itxasoz zuazela entzun det, anai Salbador, ¿egia al da?—galdetu zion praile batek—.

—«Bai alaxe da, itxasoz noa—erantzun zion Salbador doatsuak—.

—«¿Eta zein uritara?»

—«Izkiluztutako (artilatutako) uri eder bat daukan erki aldera. Guztiz *murala* edeñak dauzka».

«¿Baña uri ori Sortaldean ala Sartaldean dago?»

—«Begira Zerurontz diotsa ta une artan izar bat Sortaldetik Sartaldira igarotzen ikusi zuan, eta Santuak esan zion, bide ori bera egingo det nik».

Goiz batean Horta'ko komentuan meza laguntzen ari zala, uso bi biraka ibili ziran Santuaren buru inguruan, eta poz-pozez gelditu zan Jaungoikoak bialtzen zion albiste onekin, eta meza bukatuta gero, esan zion Aitari: «ez aldu ikusi berofek, itxaso-olatu artean ibili bear dedan bidea erakusi nairik nere buru-gañean ibili diran uso oriek?».

Salbador anaia Barcelona'ko «Santa Maria de Jesus»-komentuan bizi zala, ara etofi zan bada Bizente Ferri aita, Cerdeña'ko Erki-buru Ordenako Buruak izendatua, ta Erki-buru onek Ordenako Buruaren eskubidea zekañen al zitan prailerik onenak Cerdeña'ra eramateko. Galde-egin zion Salbador anaiari, ia berekin joango zan; eta Santuak jakiñik Jaungoikoaren naia au zala, erantzun zion: «joango naiz, Jaungoikoak ara joatea nai du-ta». Jaungoikoak dei-egiten zion bada, ta Jaungoikuaren maitasunez utzi zuan, ainbat maite zuan lufaldea, bere santutasun eta mirarien bidez Jaun-

goikoagana ta bere gauzetara eramán zuan uria ta erkia. Bere abería utzita bada, beste luñalde-  
etara dijoa: eñi oriek ez ditu gutxiago maite  
izango, emen beriztuko du, bere aberían izan  
duan santutasunaren oroipena.

Eldu zan bada irten bear zuten eguna (1565)  
ta uñeratu ziran Itxas-ontzia artzeko Barcelo-  
na'ko kaiara: bere anaien naigabe, ta uritañen  
atsekabea zakona ta aundia zan; auek beren  
beartasunen aringañia, ta aiek santutasun eta  
onbideen ikasbidea galtzen zutelako. Gure  
doatsuarekin itxas-ontzia artu zutenak Pran-  
tzisko Fuster, Luis Nabarro, Pedro Cortés,  
eta Valencia'ko beste prantziskotar praile ba-  
tzuek izan ziran. (1) Baita aiekin zijoan ere Al-  
ger'en «Nuestra Señora de la Piedad» eta Sa-  
nari'n «S. Pedro» komentuetan lendakari izan  
zan santu ura, Juan Pariel aita.

Abiatu ziran bada, ta lenengoz ontzia ederki  
zijoan aizea poparean zuala, baña bat batean  
beste arpegia atzaldu zuan itxasoak, uste da-  
nez deabrua zala bidez, bildurgañizko ekaitz  
beltza sortu zan. Mendi-urak mendi-uren ga-  
ñera zetozen, eta ontzi gaxoa galtzeko zorian,  
batzuetan gora ta bestietan ia urpean sartzen  
zala. Itxas-gizonak deadarka negañez zebiltzan  
beren eskergaitza ikusita; ....bakañik Salbador  
anaiak lo-egiten zuan. Bere anaiak esnatu zu-  
tenean jañi zan zutik; eta gurutzearen *siñalea*  
itxas-gañera eginda, abots bete-betean agindu  
zien deabruei infernuko leiza-zuluetara amildu  
zitezela.

---

(1) Salbador anaia Cerdeña'ra leku-aldatu zanean Katalu-  
nya-erkiko Burua Bartolome Vilaespinosa aita zan.

Berealaxe goiak argitu ziran, baita itxasoa bare geratu ere....

¡Miraria, miraria! entzuten zan itxas-ontzian; eta itxas-ontzia aizea poparean zuala zijoanarte, itxas-gizonak eskerak ematen 'ziozkaten Jaungoikoari bere mirabe zintzoaren bidez mesede ura egin zielako. Ta zorionak elkañi emanaz, Caller'tik 30 *miñ*a onutzago dagon Pull'ko kaiara eldu ziran. Kai onetan Salbador anaiak begiak zerurantz jasorik esan zuan:—¡Begira, begira! nola dijoan anima ura pozez-pozez Zerura!»!

—«¿Zeñen anima ikusten dezu bada zerura joaten?»—galde egin zioten—.

—«Klaratar moja baten anima; oraintxe atera da erbeste onetatik, eta pozez bere aberira dijoa».

Idatzi zuten eguna ta ordua, ta Caller'en luña jo zutenean jakin zuten, egun eta ordu berean il zala «Santa Lucia» komentuan Angela Madrigal aizpa, onoimen aundiko moja, ta komentu artako lenengoetakoa. Alaxe da Jaungoikoaren ardura: guztia gure onerako egiten du. Onetxegatik nai izan zuan, anima onbide-tsu ura Salbador doatsuari agertzea, betikotasunean zeukan zoriona aditzera emateko. Betiko zoriona iritxiko bai dute Jaungoikoa maite izaten dutenak.

1565'gañen Azaroa'ren lenengo egunetan luña jo zuten Caller-urian, eta Salbador anaia arakotua izan zan, eta antxe ere il zan.

Salbador anaiari gertatu zitzaion arpegiz eguzkiari begira dijoanari gertatzen zaiona: añaera asko joanañen, itzala beti bere ondoren darama. Igesi zabilen bere uritañen ¡gora! ta

txaloetatik; baña Jaungoikoa eguzkia bezela arpegiz aurrean zeramalako, txaloak eta goraltzak alde guztietan jaraitzen zioten, Laister joan ziran Caller'ko «Santa Maria de Jesus»'en komentura, ezin zenbatu ala gaixo beren osasunaren bila: Santuak danak ondo artzen zituan, eta mirariak zirala-ta pozez-pozetz betetzen ziran.

Emen sendatu zuan gaitz ikaragarria zeraman Isabel Morana andrea. Dei-egin zioten Santuari, ta onek gurutzearen *siñalea* egin zion amari, ta ama bezela gaixo zegoan alabari, ta biok sendatuta gelditu ziran.

—«Zu—esan zion Salbador anaiak amari— il baño len ogeita bederatzi aldiz gaixo egongo zera, ta azkenengo gaitzaldi onetan ilko zera: Jaungoikoa goratu ezazu zintzo ta egiz, betiko bizitza iritxi nai baldin badezu».

Onela siñaldu zuan andreak Santuaren epai-bidean: ordurako ogeita zortzi gaitzaldi erametak zituan, eta azkenengoaren zai zegoan zeruan sartzeko.

Aldareko *Sakramentu* Santuaren argiarentzat olio-eske ibiltzeko ardura zeukan Salbador anaiak, eta eginkizun onetarako komentutik irteten zanean, emakume beartsu baten semetxoa lagun eramaten zuan.

Egun batez olio-eske zabilzala, bat-batean, ezkanbila ta zalaparta zeriotela italiar gudari (soldadu) batzuek aurkeztu zitzaizkiten Caller'ko kaniketari, eta mutiko gizaxoa izututa atxika asi zan, eta etxe batean sarturik, an putzu-itxi baten erortzeko zoria izan zuan. Etzuan bere amak ezer jakin, iñork etzuan ikusi-ta: uste zuan emakume gaxoak, bere semetxoa aideko-  
ren baten etxean, edo komentuan Salbador



anaiari lagun-egiten izango zala. Baña seme-gabe iru egunetan egonda, asi zan zerbait lañitzen, eta Salbador anaigana joan zan.... Onek esan zion amari, onelako putzu-itxi an dei-egiozu semeari: alaxe egin zuan, eta semeak amaren otsa aditu bezin laister; «atoz seme, atoz Salbador anaiak dei-egiten dizu-ta», goi-indar batez atera zan putzutik, ikusle guztiak aritzen zirala. Galde-egin zioten mutikoari nola igarozituan iru egun aiek, putzu-itxi artan; eta erantzun zuan, urgañean Salbador doatsuak euki zuala, ta berak jaten ere ematen ziola. Joan zan ama gaixoa komentura Salbador anaiari eskerak ematera, ta Santua il zanean bere il-obian argi-ontzi bat ipiñi zuan.

Gure artean gaueko añenak esan ondoren izaten dan otoi-aldian, Caller'ko komentulendakariak antzi aundi bat atera zuan, eta Santuak esan zion: «Aita, korua ez da prailiei jaten emateko lekua, animari baño». Ariturik lendarikariak dienen aurrean esan zuan: «Jaungoikoak agertu dizkio lañi jartzen niñuten gogorapenak; prailiei nola jaten eman gogaltzen nengoan etxean ezer ez dalako».

—«Uste osoa izan beza—esan zion Salbador anaiak—Jaungoikoak biar *limosna* ona bialiko dio-ta».

Biaramonetan lau otarre ogi-zuriz beteak eramantuz zituzten komentura.

—«¡O! ze uste gutxi dezuten Jaungoikoagan—esaten zien prailiei beste egun batez, jateko ezer etzutela ikusi zutenean—. Dei-egin janlekura, Jaungoikoak jaten emango die Bera gogaltzen duten mirabiei». Eta berak añen-egiñik sartu ziran jan-lekuan, eta mai-gain guztiak

ogi bigun zuriz beteak arkitu zituzten; praileak jan-da gero ere, naikoa gelditu zan beartsuei emateko.

Gauza guztiak bere mendean zeuzkan bezela, ezerk etzion kalterik egiten.

Caller'ko andre goragañi Maria Dexart'eri ikustaldi bat egiteko aita lendakariari lagunegin zion batean, lendakaria Salbador anaiak zenbat mirari egiten zituan eta bere santutasuna edesten jardun zan andre onari. Santuari begira jañi zan andrea, ta oiñutsik ikusirik, iruditu zitzaion otzak egongo zala, ta bere mendeko bateri agindu zion su-ontzi (brasero) bat ekañi zezala, Salbador anaia berotu zedin. Egin zuan etxeko andrearen esana neskatzak, eta Santuak bere oin-goñiak su-gañean ipiñita, onelaxe aldi baten egon zan. Etxeko andreak Salbador'en egoera oartu zuanean, jaikitzen da eser-lekutik eta deadarka dio: «¡Begira, begira! Aita Salbador eñeko da!» — «Zuek gizaki utsunez betetako au goratzen ari zeraten ezkerro, bear-beañoakoa da zuk izaki ditzikor onen bitartez Jaungoikoa goraltzea—erantzun zion Salbador anaiañak—«Jaungoikoari eskeñak, eznaute eñeko zuen omen otzak».

Sukaldean pertz aundi bat urez beteta irakiten zegoan, eta anaietako batek sua mo!datzen ari zala, Salbador doatsuaren oiñetara bota zuan ur irakiña: «Orain, anai lan bi izanko dituzu, len zer egiten dezun ondo begiratu ez dezulako».

Joan ziran beste praileak laguntzera, baña Salbador anaiak bere oiñ eta anakak erakusiaz, pañez-pañez esan zien: «Ez dit ur beroak kalterik egin; bestela ondo etoñi zait, aspaldi onetan ez nituan oiñak garbitu-ta». Ta alaitsu je-

sus eta Maria españetan, zituala, lagun egin  
zien pertza betetzen.

Oñari sendoan ezaritako apaltasunaren kal-  
tez, aundiustearen suak ezer egin etzezaken  
bezela, emengo suak ere etzezaken ezer egin  
bere buruaren kaltez.

Goi-argiz Espiritu Santuak iragarpen doa-  
iez apainduta zegoan, ainbat jaungoikotua,  
geiago zirudin, gizona baño. Emendik zetozen  
bere baru-agerpen, eta etorkizunen beñi ema-  
teak. Au dala-ta jafi ginitzake emen aspaldiño  
itz neurtu auék:

Apaltasunak jaso ziñuan  
Ain jainkoar izatera  
Bazenakien ba lenengoz beti  
Gauza guztien etoñera.

## IX

*Azken gaitzaldia.—Eriotza.—Iletak.—Mirariak.—Santuaren antza.*

---

Salbador doatsuak irixten zituan onkiak, bai geidien gorputz-alde, bai animen alde, beretzat zor beñiak bailitzan artzen zituan, eta lenengoei batuta zama aundiago ta aztunagoa egiten zioten. Gogapen onek beartzen zuan bere ardura geitu ta bere maitetasuna biziagoa izatera. Jaungoikoaganako maitetasun sutsuaz gañera, Ama Mariaganako ere maitetasun aundia nabaitzen zuan. Askotan Mariaren aldare aurrean belauniko jaña ikusten zan, eta bere oneraspen eta maitasun indaiez, gorputzeko zama aztuna galdurik, aldare goian zegoan Mariaren irudiraño igota Berarekin elkarizketa gozoak izaten zituzten, azken gaitzak artu baño len egun batzuek aurretik batez ere.

Gau oetako batean, bere burua *dizipliñaz* ondo astindu ondoren, sentzun galduta luñetik gora jaso izan zan, eta bere eriotza urean, eta eriotz ondoren betiko bere zorionaren asiera, laister izango zala, iragañi zion Jaungoikoak. Iragarpen au artuta gero, ain aundia zan bere poza, sañitan abesten jarduten zan: «Jesus Maria, ¡o! ez det nik merezi au! Jesus Maria, ez det nik merezi au!».

Santuak il lañietatik onez aterata, il baño len ogeita bederatzi aldiz gaixotuko zala iragañi zion Isabel Morana andreak galde-egin zion: «Zer egin bear det nik Jaungoikoa goraltzeko, Berak goraltzea nai duan bezela? Salbador anaiak erantzun zion: «Sakramentu Santuak

sari artu itzazu: zure otoitza etengabea izan be-  
di; sentzumenak garbi zaitu itzazu, Jaungoikoak  
eginkun auek esku-zabalez ordaintzen ditu-ta.  
Otoi egizu nitzaz, Jaun aberats, aundizki ta al-  
tsu baten eztaietara dei-egiña nago-ta».

—«¿Eta noiz da zure irteera?—galde-egin  
zion Santuaren ezkutapenak igertzen etzitian  
andreak.

—«Ama Mariaren ezkontide Jose donearen  
jai-auñean—erantzun zion.

Uste zuan andreak, prailea, komentuko on-  
gilen batek jai artara dei-egiña izango zala.

Artean uferatzen zijoakion eztaietako jai-  
eguna—Salbador anaiak zion bezela—ta 1567'  
gañen epaileko 11 edo 12'an gaixotu zan. San-  
tuak bazekian gaitzaldi au azkenengoa izango  
zala, ta bere azkenengo *kontua* emateko era-  
tzen azi zan, ez bere bizialdi guztia Jaungoikoa  
goratu izan duan gizaki bezela, orduan oben-  
nekea asten zuan obendun bezela baizik: Jaun-  
goikoaganako uste osoak, animako narotasu-  
nak, eta arpegian diz-diz-egiten zuan atsegiñak  
ondo agertzen zuten bere biotzean zeukan pakea.

Iru egun il-auñetik negañez aitorpen orokoña  
egin zuan, baita beste azken-Sakramentuak  
artu ere: bere gelan eregeen Erege-Jaun-Sakra-  
mentatua, sartu baño len oetik jaikita belauniko  
jari zan, eta onelaxe negar malko mardulak  
ixurtzen zituala Jaun Aundia artu zuan.

Eskatu zuan *limosnaz* soñeko ta obi apal  
bat bere gorputza lufaltzeko, eta Jaungoikoa-  
ren auñean bere bizikeraz eskier etzegoalako,  
dienei askezpena (barkazioa) eskatu zien, be-  
rak ere dienei azketsiaz. Luñetik jasota, oster-  
oiean sartu zuten, eta orduan gurutze santua

eskuetan artuta ezpañak bere oin santuetan ipiñirik, eskeñak eman zizkion Jaunari, gorputz-etxetik anima aterata, zeruan daukan zoriona ematera zijoalako.

Urian berealaxe zabaldu zan Santua azkene-tan zegoala: uritañen naigabea aundi ta zakona zan, gaixoak sendagilea, beartsuak laguntza-ilea, ta dienak zori-txañetan pozgilea galtzen zutelako. Esker gaitzik aundiena zan bera galtzea.

Antonio Parrages, artzobispo jauna, Erege-ordekoa, aolkariak (konsejeroak), aundizki ta uritañak joan ziran berealaxe komentura San-tuaren onespina artzera, ta artzobispoak eta Erege-ordekoak oiaren aúean belauniko jañi-ta esan zioten: «Ez gaitzazu aztu aita Jaungoi-koaren aúean, eta zaitu beti zutik uri ta eridi au».

—«Jesus Maria, bai egingo det, Jesus Maria egingo det».

Eta agintz au eginda eskatu zuan *Extrema-untzioa* ta adoretzu artu zuan.

Bizialdian ainbat eraso egin zion deabruak beñiz ere ekin zion, baña Salbador anaiak otoi-egin zuan esanaz: «etzaite bildur izan nere gor-putz maite ori, deabruak añokeriz ordu onetan egiten dizun gudagatik, Jaungoikoaren eta be-re Amaren erukiz, laister Berak ikustera zeru-  
ra joango naizela eskier nago-ta».

Itxaropen eta bildur-aldi oetan igaro zuan egun ura añatsaldeko iru orduak arte: ordu onetan asi ziran praileak il-lañietako añenak esaten, geiago negañez otoi-egiten baño. Jaun-goikoaren mirabe zintzoak begiratzen zion es-  
kutan zeukan gurutzeari, ta azkenengo aldiz

esan zituan itzak, auek izan ziran: «Jauna zure eskuetan ipintzen det nere anima, Jesus Maria....» Bere anima Jaungoikoaren besoetan zegoan. 1567'ngo, epailaren 18'an adiñez 47, ta Ordenan 25 urte zituanean: Ordenako Buru Luis Puteo aita agurgaria zan.

Santua iltzan une-unean kanpaiak berez jotzen asi ziran, eta ekaitz bildurgari bat sortu zan, uste danez deabruaren bidez,

Kanpaien joaldia zeruko atsegiñaren agerpena da, ta ekaitza deabruen naigabearena, artzobispo jaunak zionez: deabruak eragotzi egin nai dio erriari, Santuari gur-egitera etortzen. Au dala-ta agindu zuan gorputzari luñik ez emateko berak agindu arte.

Komentuko elizaren erdian ilari aundi bat jafi zan, eta bere gañean ipiñi zuten prailearen gorputza. An batu ziran eliz-gizon, aundizki ta eria, ta guztiok kalerik kale, abesten zijoazen beren laguntzale izan zanaren goraltzak, eta dienak bere soiñeko, bere oin eta *errosarioak* ikutu nai zituzten: Jaungoikoak aien oneraspena ta fedea ondo artu zuan, Santua-ren soiñeko puzkak artu zituztenen alde, ezin zenbatu ala mirari egin zituan-ta. Gorputza garbitzen erabili zan urakin ere batzuek egin ziran.

Beti Gizostea geitzen ari zan, iru egun zala iltzan gorputzak zabaltzen zuan usai gozoa, ta gorputz-alderdiak gordetzen zuten biguntasun otsarekin. Onelakoetan gertatzen dan nastaketa eragoztearen, Artzobispoak agindu zuan gorputzari luña eman zekiola. Luñaltze au aurkeztu zutenak artzobispo jauna, Errege-ordekoa, eliz-nagusiko *kanonigoak*, praile-bazku-

na, Aundizki ta eñi-oztea eruz izan ziran. Santuaren goraltz-izkintza Jesus'en Lagundiko Juan Peña aitak egin zuan.

Eta luñaldua izan zanetik, zeruak bere il-obia aintzatsua egin zuan: au dala-ta asi zan jendea goraltzen eta gur-egiten, Ama Elizak santutzat aitortzen dituan elizkizunakin. Artean egun gutxi ziran luñaldu zutela. ta urte asko baldaturik zeramazkien andre bat eraman zuten Santuaren il-obira. Ikutu zuan il-obi aña, ta berealaxe sendatuta gelditu zan.

Beste andre bat aña ezin egiñik iltzan. Gorputza, prantziskotar soñekoz jantzita zegoan, ileak gañean eta obia erekita: baña aideak, irixten dute aita lendakariagandik Santuari bere gorputza garbitzerakoan kendu zioten *kaputxa*, ta ilaren zabelean ipiñita bota egiten du aña, ta berak lenengo asnaz aundi bat arturik, begiak zabaltzen ditu ta azkenez izketan astenda, .. bizia iritxi zuan eta urte askotan bizi izan zan,

¿Zergatik jañaitu? ¿Zer dala-ta edestu mirari geiago...?

Gure Santua, gorputzez, luzea baño txiki-antzekoa geiago zan, baña sendoa edozein lanetarako eratua: bere arpegia agurgari pozkaria, zintzoa ta bixia zan, berez lotsati xamaña, ta zeinki onek maitagari egiten zuan. Burua biribila zuan, eta kopeta-gaña zerbait soildua; ilea gaztain-*kolorea* ta kiskur xamaña. Arpegia ta kopeta zabalak, begiak txiki ta biziak, begiratzea gozo ta apala. Besoak eta eskuak lodiak, beatzak esku-neurian. Oiñak txikiak baña beteak. Berez apala zalarik bere asmoe-



tan iraunkofa zan. Itzaldietan usoa zirudin, ba-  
ña aseñaldietan bildurgafia zan. Etzan erax  
aseñatzen zana, ta egiten zitzaizkion iraiñak  
(ofensak) bereala barkatzen zituan. Gutxitan  
pañez ikusten zan, eta ixila izan zan beti.

Au da Santuak azaletik egertzen zuan antza;  
baru-bizitza ta bere onoimenak esanda daude  
irugafen irakurburuan.


*Epaibideak.—Gurtza.—Korpuzkiak*

Santua il-da gero lenengo epaibideak asi ta Eliza Ama Doneagana zuzendu zana Prantzisko Gonzaga agurgaria, Ordenako Buru ta geroago Mantua'ko obispoa, izan zan. Lenengo aldiz aurkeztu zuan edestian esaten zion V.'-gañen Sixto (prantziskotara) Aita Santuari: «Hortako Salbador arigaria da bere fedean, eta ospetsua bere mirarietan»: bigañenez: «Salbador doatsua santutasun goragarizko gizona da, ta ain goretsia onoimen mota guztietan, danok arituta geratzen dira, bere garbitasun eta tolesgabetasuna ikusirik». Sixto A. S. onartu zituan edesti biok, «*Cum sicut nobis exposuisti*» asten dan eskutitz au 1586 gañen Dagonilaren 3'an. Santua ilondoren 19'gañen urtean emana dago.

1600'gañen urtean Alfonso Lano Sedeño, Caller'go artzobispo jaunak, Horta'ko Salbador anaia «kanonizatua» izateko epaibideak artu nairik, uri artako komentura joan zan, bere begiz bizitzan eta eriotz-ostean ainbat mirari egin zituanaren gorputza aztertzeke.

Jakintsu ta sendagile askoren aurrean, agindu zuan bada artzobispo jaunak, ogeit'amalau urtean bere baruan gorderik euki zuan obia erakitzeke, ta gorputza osorik, eder eta bigun arkitu zuteñ.....

Aundizki ta eri guztiaren eskariz Artzobispoak egin zuan ikusaldi ondoren asi zan Hortako Salbador anaiaren bizitza, onoimen eta



Salvador doatsuaren korpuzkiak,

mirarien epaibidea. Gure Ordenako Buruaren izenean, eta epaibideak aurrera eramateko, (Promotor) Cerdeña'ko erki-burua, Damaso Serpi aita izendatua zan.....

Katalunyarak ere beren aldetik Salbador anaiaren «kanonizazioa» eskatzen zuten: Au dala-ta Tortosa'ko obispo jaunak agindu zuan epaibideak artzeko Salbador agurgarriak egingako mirarien ziñakin. Orobat egin zuan ere Barcelona'ko obispo, Alfonso Coloma jaunak. Eta epaibideak artzeko egin zituzten lanak berak aztertu ondoren, agintz au idatzi zuan: «Barcelona'ko eliz-barutian zabaldu ditezke izpar-ingietan eta abar Horta'ko Salbador doatsuaren bizitza, onoimen eta mirariak». Agintz au emana dago 1600'gañen Dagonilaren 30'an.

Epaibide auek guztiak bear ziran ziñakin VIII'gañen Klemente Aita Santuagana bialduak izan ziran III'gañen Felipe España'ko Eregearren eskutitzakin. Aita Santuak Oikun-Batzarari (S. Congregación de Ritos) eman zion aztertu zezan. Batzar onek 1606'gañen urtean erantzun zuan: «Gerorako utzi bedi «kanonizazioa» beste asko lenagotik epaibideak aurkeztuta daudelako..... Baña bitartean baimena ematen degu, “Horta'ko Salbador” izenakin bere irudia egiteko, bere bizitza, onoimen eta mirariak idazteko, ta irudia elizkizunetan erabiltzeko, bere zalekoñak atsegin izan dezaten.

VIII'gañen Klemente Aita Santuak berak baimena eman zuan Erroma'n Horta'ko Salbador doatsuaren irudia margotzeko (pintatzeko) ta bere mirariak idazteko: irudi au Santukoroia-kin dago.

VIII'gañen Urbano A. S. onartu zuan Ca-

Iler'en, Barcelona'n, Perpiñan eta beste lekue-  
tan esaten ziran ereserki, erantzunkari ta oto-  
itz auek:

## HYMNUS.

Ab Horta lux est orta  
Qua tota luxit Hispania,  
Præsertim Cathalonia,  
Simul etiam Gallia.

Extinctus in Sardinia,  
Reluxit super sidera  
Post inclita miracula  
Nos coelitus illuminet.

Jesu, tibi sit gloria  
Qui te revelas parvulis,  
Cum Patre, et almo Spiritu  
In sepiterna sæcula. Amen.

V. Ora pro nobis, Beate Salvator.  
R. Ut digni efficiamur promissionibus  
Christi.

## RESPONSORIUM.

---

Iste homo ab adolescentia sua meruit infir-  
mos curare, dedit illi Dominus claritatem mag-  
nam: Caecos illuminare et doemones effugare.

Ecce homo sine quaerela, verus Dei cultor,  
abstinens se ab omni ópere malo, et perma-  
nens in innocentia sua.

Caecos illuminare..... etc. Gloria Patri, et  
Filio, et Spiritui Sancto.

Caecos illuminare..... etc.

## OREMUS.

---

Deus, qui humilitate Sanctorum tuorum, omnipotentiam tuam mirabiliter manifestas, quique Beatum Salvatorem ab Horta, famulum tuum, admiranda simplicitate, et mirabilium curationum gratia decorare dignatus es: tribue nobis quaesumus, ut omnes, petitionis suae salutarem consequantur effectum. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Bereala asi ziran Salbador doatsuaren irudita mirariak zabaltzen: irudi oriek, len esan degun bezela, santu-burestunakin (koroia) daude. Eta bere bitartez Jaungoikoak egiten zituan mirariak ikusita, etzan jendea lo-egon bera goraltzeko: *kapilak* eta aldareak laister asi ziran egiten, eta bere eguna jai-egiten zuten alde guztietan Santu beraren onomenak eliz askotan goretsiaz. Onela joan ziran gauzak 1724'gañen urte arte. Urte onetan VIII'gañen Benito A. S-ren baimenaz Oikun-Batzañak baietza eman zuan Horta'ko Salbador doatsuaren jai-egunean (1) eliz-arendiak egin ta bere meza emateko, prantziskotañen Ordenan, Caller-Urian, eta Horta'n, bere jaioteñian. Eta alaxe dator egiten gure egunak arte.

Bere *Relikiak* leku askotan daude. Sassari'n dago bere biotza: Mureva'n gorputz-zain bat; Erroma'n bere sedazko soñekoa: Jerona'ko S. Prantzisko komentuan saietz-ezur bat eta soñeko puzka bat: Barcelona'ko Antonio do-

---

(1) Epailaren 18'an.

nearen komentuan Kardenal Casañas agur-  
fiak eman zuan beatz bat.... eta abar.

Emen bukatzen degu Horta'ko Salbador doa-  
tsuaren Bizitz-edestia. Bera izan bedi bada gu-  
re bidauékoa gure bizialdiak luñean irauten  
duanarte. Euki dezagun gure begien aúrean  
bere bideak jañaitzeko, ta iritxi zeruko gloria.

---

*OARÁ.*—Bizitz-edesti au egileak egin zuan  
baño zerbait laburtxoago euskeratu da. Gañera  
egilearen itz-aúrea kenduta, euskeratzaleak  
berea ipiñi dio.

*Horta'ko Salbador doatsuaren  
Bederatzi Asteazkenak*

---

Salbador doatsua artean bizi zalarik berak il-lañietatik onez atera zuan Caller'go andre bateri agindu zion oneraspena da: «Ni mundu one-tako biztanle enaizenean ikustaldi bat egiozu *bederatzi asteazkenetan* nere il-obiari, piztu itzazu *bederatzi lanpara* ta otoi-egiozu Ama Mariari, ta opa dezun grazia iritziko dezu». Alaxe egin zuan andreak eta bera izan zan oneraspen onen zabaltzalea.

Gure Santua aldaretan, jañita gero, Caller'go prantziskotañak ipiñi zuten beren elizan oneraspen au, ta berealaxe zabaldu zan mundu guztira.

Nai dan grazia irixteko ondo izango da obena-aitortza ta jaunartzea.

---

(Bederatziurēna ere egin diteke.)

*Gurutze † Santuaren.....*

**DAMU OTOITZA**

---

Jesukristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, nere Egile ta Salbatzale ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta oben-nekea betetzeko. Amén.

**EGUNEROKO OTOITZA**

---

Uste oso-osoz beterik zugana gatoz Salbador doatsua, gure pekatuen azkespen (barka-



pen) eta *bataio* donean zin-egotzi genuan Fedean iraupena Jaungoikoagandik iritxi dezai-guzun. Zure bitartez Jaunaren *graziak* indartzen gaituelarik, obeto ezagutuko degu zertarako jaioak geran ondo bizi izateko, ta zuk bezela biotz apal eta sindoaz Jaungoikoari guregiteko: zuk orain zeruan gozartzen dezun atsegiña, guk ere egunen batian gozartu dezagun Amén.

## I ASTEAZKENA

---

¡O! Goiko fedearen izar diztiatzalea, Salbador doatsua! argitu ezazu nere adimena, Jaungoikoak agertu dizkigun egiak ezagutzeko, ta beti gogoan euki egi aundi au: «egipen onikabe fedea ilik dago».

Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria.

## ABESKIÑOIA

---

Gaztetandik, Gizon au, gaixoak sendatu, itxuei ikusmena eman eta *deabruak* aientzeko gai izan zan. Jaungoikoak ospetsua egin zuan.

Otoi-egizu gure alde, Salbador zorientzua. Jesukristoren agintzak iritxi ditzagun.

## OTOITZA

---

Azkengabeko âla zure santuen apaltasunez ariagarro agertzen dezun Jaungoikoa, ta zure mirabe Salbador doatsua sindasun bereziz eta sendapen ariagarrien *graziz* apaindu zenuana; egizu, aŕen, bere laguntza eskatzen duten guztiok, opa dutena iritxi dezatela. Kristo gure Jaunagatik. Amen.

## II ASTEAZKENA

---

¡O itxaropenaren eredu goragaña, Salbador doatsua! Egizu, añen, guk ere egunen batean Jaungoikoa zeruan gozartzeko itxaropena izan dezagula, ta itxaropen oni onoimen guztiak lagun egin-dezaiotela. Amen.

## III ASTEAZKENA

---

¡O Jaungoiko ta geideaganako maitasun-gar bizia, Salbador doatsua! Irazeki ezazu nere biotza maitasun suaz, Jaungoiko ta geideak egiz maite izanik gorputz eta animako ondusun gogokoñak iritxi ditzadan, eta onela zeruratu nere anima. Amen.

## IV ASTEAZKENA

---

¡O Salbador doatsua ta otzana, naigabe gorietan Jaungoikoa alaitsu goratzen zenakiena! Egizu añen zure eskariz eramanpenaren bideak ikasi ditzadala, ain beañekoa dan ezkerro onoimen au nere eginbeañen gurutzea eramateko, ta gero zeruan betiko bizi nadin. Amen.

## V ASTEAZKENA

---

¡O atsekabetuen poza ta gaixoen sendagilea, Salbador doatsua! Atsegindu ezazu nere biotza estualdi ta ezbeañetan, eta iritxi zadazu nere animaren osasuna, beti Jaungoikoarentzat bizita, Bera atsegindu dezadan, egunen batean zeruan ikusteko. Amen.

## VI ASTEAZKENA

---

¡O Salbador doatsua ta apal-apala, mundua-  
ren goralz eta txaloen artean Jaungoikoak ain  
maite duan apaltasuna zaitzen jakin zenuana!  
Iritxi zadazu onoimen goragañi au, ta egizu be-  
re bidez nere anima zeruratzeko aña izan na-  
dila. Amen.

## VII ASTEAZKENA

---

¡O eratasun guztikoaren eredua, Salbador  
doatsua! Egizu zure eratasun eta zindasunaren  
antz-bidea jañaitu dezadala, nere itzak eta egi-  
penak zureak bezela izan ditezen, eta bataio  
donean agindu nuana beterik, betiko zerua iri-  
txi dezadan. Amen.

## VIII ASTEAZKENA

---

¡O Garbitasun-lirio usaintsu, Salbador doa-  
tsua! Iritxi zadazu deabruak alde guztietan za-  
baltzen dizkidan sare gaiztoak autsirik, nere  
bizikeraz dagokidan garbitasuna zaitzeko gra-  
zia, onela biotzez garbia izanik, zeruan Jaun-  
goikoa ikusi dezadan. Amen.

## IX ASTEAZKENA

---

¡O Jesus'en Nekausteen maitatzale Salbador  
doatsua! Egizu Jesus'en Nekaldia beti gogoan  
eramateko grazia, nere eriotz orduan Jesukris-  
toren ikasletzat ezagutua izan nadin, eta zeruan  
sartzeko atsegiña izan dezadan. Amen.

---

Arantzazu'ko Ama Goragañi eta Horta'ko  
Salbador Doatsuaren Goraltzarako. Alaxe.

---

VI ASTERISKEN

O... bado... to... m...

VII ASTERISKEN

O... bado... to... m...

VIII ASTERISKEN

O... bado... to... m...

IX ASTERISKEN

O... bado... to... m...

O... bado... to... m...



# ARKIBIDEA

Orri-  
aldeak

Itz-aurrea . . . . .	3
I.—Aberria.—Jaiotza.—Gurasoak.—Aurtzaroa.— Gaztaroa . . . . .	7
II.—Barcelona'n.—Prantziskotar praille-gai.—Le- nengo mirariak.—Ziñitzak . . . . .	10
III.—Santuaren onoimenak . . . . .	15
IV.—Barcelona'tik Tortosa'ra.—Bellpuig'ra.—Le- rida'ra . . . . .	20
V.—Horta'ra bialdua da.—Iragarpena.—Mirariak.— Odoi arrigarria.—Astidu gogorak.—Izen al- datzea.—Reus'a.—Arpena.—Mirariak . . . . .	28
VI.—Bidari berriz ere.—Alde guztitan on egiñaz.— Montserrat'en.—Barcelona'ra eldu da.—Inkisi- zio-auzitegian.—Mirarien jarraipena . . . . .	41
VII.—Erregeak Madrid'a dei-egiten diote.—Madrid'tik Valencia'ra.—Gandian.—Barcelona'ra . . . . .	52
VIII.—Cerdaña'runtz itxas-ontzia artzen du.—Ekaitz izugarriak.—¡Begira, begira!—Caller urira el- du da.—Iragarpen eta Mirariak . . . . .	58
IX.—Azken gaitzaldia.—Eriotza.—Illetak.—Mira- riak.—Santuaren antza . . . . .	66
X.—Epaibideak.—Gurtza.—Korpuzkiak . . . . .	72
Bederatzi asteazkenak . . . . .	78



ARRIVED

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page, covering the majority of the page's content.



